

Aldizkaria



-  Hondakinei buruzko lege berria
-  Yonolotiro.es, berrerabilpenerako leiho irekia
-  Prebentziorako Europako III. Astea
-  Erosketa publiko iraunkorra
-  TEEHei buruzko dendak eta birziklapena
-  Beira birziklatzeak dakartzan onurak
-  Mankomunitateburu berriak



SUSTATZAILEAK

Nafarroako Gobernua
Ecovidrio
Ambilamp
Ecoasimelec
Ecolec
Ecolum
Ecofimática
Ecotic
ERP – Birziklapen arloko Europar Plataforma
Tragamóvil

LAGUNTZAILEAK

Nafarroako Hondakinen Partzuergoa
Nafarroako hondakin mankomunitateak

KOORDINATZAILEA

Nafarroako Ingurumen Arloko Baliabide
Zentroa (CRANA)

DISEINUA ETA MAKETAZIOA

Nexo Comunicación

2. alea. Euskarri digitalean eskuragai.
Inprimatzen baduzu, erabili paper birziklatua eta
inprimatu bi aldeetatik.

LEGE GORDAILUA

NA-1330/2011

Aurkibidea


ARAUDIA

Hondakinei buruzko lege berria
1-5. or.



PREBENTZIOA

Yonolotiro.es, berrerabilpenerako leiho irekia
Prebentziorako Europako III. Astea
Erosketa publiko iraunkorra
6-10. or.



TEEH

TEEHei buruzko dendak eta birziklapena
11-15. or.



BEIRA

Beira birziklatzeak dakartzan onurak
16-20. or.




LABURREAN

Mankomunitateetako buru berriak
21-22. or.



INFORMAZIOA

Hiri hondakinen kudeaketari buruzko datuak, 2010
23-24. or.



Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko lege berriaren funtsezko alderdiak



Langileak, hondakinak bereizten

Parlamentuak, joan den ekainean, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko Legea onetsi zuen, Europako 2008/98/EE Zuzentarauak agindutakoa betetzeko. Hona hemen Legeak dakartzan helburu nagusiak: prebentzioa, hondakinak baliatzea, berrerabilpena eta birziklapenean aurrerapauso gehiago ematea, eta baliabideak sortzeak eta kudeatzeak osasunean eta ingurumenean eragiten dituzten ondorio kaltegarriak murriztea.

Arau berriak hainbat helburu ezarri ditu; besteak beste:

- 2015. urtea baino lehen, hondakinak bereizita bildu beharko dira; hau da, papera, plastikoa, beira eta metalak. Halaber, bio-hondakinak jatorrian bereiztea sustatuko da.
- 2020a baino lehen, prebentzioak % 10 izan beharko du, 2010ean sortutako hondakinen aldean. Hiri hondakinen % 50 berrerabili eta birziklatu beharko da. Bestalde, eraikuntza eta eraispenerako hondakinen % 70 prestatu beharko dira, berrerabiltzeko, birziklatzeko eta balorizatzeke.

Honatz, bestalde, legeak dakartzan alderdirik nabariena:

Hierarkia

Araudi honek hierarkia-printzipioa esaten zaiona ezarri du hondakinak kudeatzeko. Printzipio horrekin bat, lehentasunez aukera hauek erabiliko dira, hondakinak kudeatzerakoan: prebentzioa, zertarako eta hondakinen kopurua, arriskua eta eragina murrizteko; hondakinak behar bezala prestatzea, berrerabiltzeko; hondakinak kalitate handiz birziklatzea; bestelako balorizazioa (balorizazio energetikoa, adibidez); eta, azkenik, ezabaketa.

IV. eranskinean, bestalde, hondakinak pre-

benitzeko neurriak bildu dira; hala nola, eko-diseinua, etiketa ekologikoak eta oihanak ziurtatzeko sistemak sustatzea; erabilera bakarreko produktuak aldatzera bideratutako neurriak hartzea; eta, hondakinak prebenitzeko borondatezko akordioak egitea, hainbat sektoretarako.

Kontzeptu berriak

Arauak, gainera, kontzeptu berriak dakartza; esate baterako, hondakin-izaeraren amaiera eta azpi-produktua. Arauak, halaber, esaten du zer irizpide bete behar dituen hondakin batek delako izaera hori galtzeko.

Ontziak berreskuratzeko aukera

Prebentzioa sustatzeko eta kalitate handiko birziklapena bultzatzeko, atea ireki zaizkio Ontziak Gorde, Itzuli eta Berreskuratzeko Sistemari, baina teknikari, ekonomiari eta ingurumenari begira tresna egokia dela frogatzen baldin bada, hondakinak eraginkortasun handiagoz kudeatzeko.

2018an, erabilera bakarreko poltsak ezabatuko dira

Horrenbestez, 2018a arte, pixkana-pixkana desagertu egingen dira merkataritzan erabiltzen diren erabilera bakarreko plastikozko poltsak. Urte horretan erabat ezabatuko dira, betiere arrainak, haragiak eta bestelako elikagai galkorrak eramateko erabiltzen direnak izan ezik. 2015etik aurrera, poltsa horiek mezu bat eraman beharko dute ingurumenean sortzen dituzten eragin kaltegarriez.

Oihan-ziurtapena

Lehen aldiz, oihan-ziurtapena arauan txertatu da.

22/2011 LEGEAREN ETA NAFARROAKO HONDAKINAK KUDEATZEKO PLAN INTEGRATUAREN HELBURUAK (NHKPI)

	22/2011 Legea	NHKPI 2010-2020
2015 baino lehen	Hondakinak bereizita biltzea	
2018an	Erabilera bakarreko poltsak debekatzea	
2020 baino lehen		Bio-hondakinen % 50 bereizita biltzea
	Hiri hondakinen % 10 murriztea	Hiri hondakinen % 10 murriztea
	Hiri hondakinen % 50 berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestatzea	Hiri hondakinen % 52 berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestatzea
		Tamaina handikoen % 10 berrerabiltzea
	Eraikuntza eta eraispenerako hondakinen % 70 prestatzea, berrerabili, birziklatu eta balorizatzeke.	Eraikuntza eta eraispenerako hondakinen % 70 prestatzea, berrerabili, birziklatu eta balorizatzeke.

Nafarroako Hondakinak Kudeatzeko Plan Integratua, urte bat geroago

41 neurri abiarazi dira 2011n; gehienbat, prebentzioan.

Nafarroako Hondakinak Kudeatzeko 2010-2020 Plan Integratua onetsi eta abiarazi zenetik urtebetera, esan behar da jadanik berrogei eta bat neurri abiarazi direla, Planean aurreikusita daudenetatik; haietatik, hamalau izaera orokorra dute; hamalau prebentzio arlokoak dira; bederatzi, balorizazioak, eta lau, ezabaketa arlokoak. Aurrekontuak, guztira, 677.469 € jo du. Neurri asko hiri hondakinatarako izan dira; gero, hondakin arriskutsuetarako, eta eraikuntza eta eraispenerako hondakinatarako.

Planak 160 neurri dauzka, hamaita azpiprogrametan banatuta, eta, aurrekontua, guztira, 212.985.900 € da (166.400.000€ balorizazio energetikorako plantarako).

Hainbat erakunde arduratu dira neurriak gauzatzeaz. Hona hemen: Ingurumen, Landa eta Itsas Inguruneke Ministerioa, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentua, Gestión Ambiental de Navarra (GANAS)

SA) enpresa publikoa, Nafarroako Hondakinaren Partzuergoa, hondakinak kudeatzear arduratzen diren Mankomunitateak eta Udalak, Nafarroako Ingurumen arloko Baliabide Zentroa (CRANA) eta Kudeaketa Sistema Integratuak.

Erakundeek emandako informazioaren arabera, 2012an laurogei eta hiru jarduketa egitea aurreikusita dago, eta aurrekontua, guztira, 29.121.042 € izanen da. Hogeik izaera orokorra dute; hogeita zortzi prebentzio arlokoak dira; hogeita bederatzi, balorizazioak, eta sei, ezabaketa arlokoak.

Planaren Jarraipen Batzordea

Kontu horiek eta beste batzuk solasgai izan ziren Planaren Jarraipen Batzordeak egindako bigarren bileran. Bilkura, zehazki, joan den urtarrilaren 27an egin zen, Ingurumen Departamentuan. Organo horrek planaren garapena eba-

luatzen du eta Planaren helburuentzako egokitzen jotzen diren aldaketak eta ekimenak txertatzen ditu. Hona hemen nor diren batzordekide; Nafarroako Gobernuko Ingurumeneko zuzendaritza nagusiko ordezkariak; GANASA enpresa publikokoak; Nafarroako Hondakinaren Partzuergokoak; eta, hondakinak kudeatzear arduratzen diren Udal eta Mankomunitateetako ordezkariak. Halaber, ordezkari dira kudeaketan ari diren eragileak eta entitateak.


Planaren aurreikuspenen arabera, urtean behin berrikusi eta ebaluatu behar da egoera zertan den eta zer aurrerapauso izan den Planean ezarritako helburuak lortze bidean; hartara, azpiprograma bakoitzeko adierazleak erabiltzen dira. Emaitzak eta ekintzak gainerako urteko txostenetan bilduko dira. 2015. urtean, bestalde, Planaren berrikusketa osoa egiten da.

2011ko adierazleak berrikusi ondoren, haietako batzuk gaurkotu beharra ikusi da, eta berriak txertatu beharra ere bai, helburuak noraino bete diren jakiteko bidea izan dezagun.

AZPIPROGRAMA	PLANA. NEURRIAK	ABIARAZITAKO NEURRIAK 2011	2012an AURREIKUSITAKO NEURRIAK
Hiri hondakinak	43	22	15
Hondakin arriskutsuak	20	2	3
Erabileratik kanpoko ibilgailuak	9	0	5
Erabileratik kanpoko pneumatikoak	8	2	4
Pilak eta akumuladoreak	4	0	1
Hondakin elektrikoak eta Elektronikoak	10	2	1
PCB, PCT eta holakoak dauzkaten tresnak	6	0	0
Eraikuntza eta eraispenerako hondakinak	20	4	8
Lohiak (EDARU) eta gisakoak (LD)	8	1	0
Nekazaritza erabilerarako hondakin plastikoak	6	0	0
Industria hondakin ez arriskutsuak (IHEA)	18	3	0
Horizontala (H)	8	6	0
GUZTIRA	160	41	37

1. Taula. Azpiprogrametan egindako ekintzen gaineko datu orokorrak

Guztira sortu diren HA-Hondakin Arriskutsuak (t) NIEI-Nafarroako Industria Ekoizpenaren Indizea




2008tik hona hondakin arriskutsu gutxiago sortu da. 2009an, jaitsiera nabarmena gertatu zen, jarduera ekonomikoa nabarmen jaistearekin batera. 2010ean gora jo zuen, metalurgia-enpresek eraginda.

2008aren aldean, hondakin arriskutsu gehiago balorizatu dira, ezabatu diren hondakin arriskutsuen aurrean. Igoerarik handiena 2009tik 2010era izan da; izan ere, kopuru ezabatuaren aldean, kopuru birziklatua 2010ean gehiago handitu egin da aurreko urteetan baino.


NHKPI helburuak betetzeko aurreikuspenak: ez dago helburu kuantitatiborik, baina murriztera jo behar da.

Etxeko konpostajearen aritu den familia kopurua (konpost-ontzi kopurua)

Konpost-ontzi kopurua




Sortutako IHEA-Industria Hondakin Ez Arriskutsuak (t) – NIEI-Nafarroako Industria Ekoizpenaren Indizea



Jarduera ekonomikoa moteltzearen ondorioz, 2008tik hona hondakin ez-arriskutsu gutxiago sortu dira.

NHKPI helburuak betetzeko aurreikuspenak: ez dago helburu kuantitatiborik, baina murriztera jo behar da.

Eraikuntzako eta Eraispenerako Hondakinen ehunekoa (EEH)



Azken urtebete honetan igo egin da agregakin eta material birziklatuaren ehunekoa, nagusiki kudeatzaile berrien datuak kontuan hartu direlako. Birziklatutako portzentajeak gora egin badu ere, oraindik ez da helburua betetzen.

NHKPI helburuak betetzeko aurreikuspenak: % 25 (2012): % 12 falta da.

Hondakin organikoak prebenitzea eta tratatzea, 2020rako erronkak



Hondakin organikoak. (IMk utzitako argazkia)

Gure hondakin asko organikoak dira eta ingurumenean eragin handia sortzen dute. Estatuko eta Nafarroako araudiek hainbat helburu eta neurri proposatu dituzte hondakin organikoek ingurumenean duten eragina murrizteko.

Gure eguneroko eginkizunetan sortzen ditugun hondakin asko organikoak dira: nekazaritzak, abeltzaintzak eta oihangintzak sortzen dituztenak; nekazaritzako elikagaigintza-aren hondakinak edota hiri hondakin aunitz ere bai. Hondakin organikoek eragin handia sortzen dute ingurumenean, hainbat arrazoi direla medio; esaterako, berotegi-efektuko gasak sortzen dituztelako, eta lixibiatuek lurzorua eta ura kutsatzen dituztelako. Egungo araudiak, horrela, hondakin organikoek prebentzioa, bilketa eta tratamendua sustatu nahi ditu, hondakinok ingurumenean sortzen duten kaltea murrizteko.

Araudia

Estatuan, hondakin organikoak arautzen dituen arautegia, nagusiki, lege batez eta dekretu batez osatuta dago. Bate-tik, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 22/2011 Legea dago, eta, bestetik, 1481/2001 Errege Dekretua, hondakinen ezabaketa isurtegiaren azterketa bidez arautzeko. Legeak, aurreko paragrafoan ikusi dugun bezala, zehazten du 2015 baino lehen bio-hondakinak jatorrian bereiztea sustatuko dela. Errege Dekretuak, bere aldetik, xedatzen du, 2016tik aurrera, ezin izan direla isuri udal hondakin biodegradagarrien % 35etik gora, 1995ean sortutakoan aldean.

Gure herrialdeari dagokionez, Nafarroako Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralak (NHKPI) xedatu du 2020rako hiri hondakinak % 10 murriztu beharra, hainbat neurrien bidez: esaterako, etxe-ko eta auzoko konpostajea sustatuz. Era berean, bio-hondakinen % 50 bereizita bildu beharra ezarri du, konpostatzeko edo digestio anaerobiorako, eta honda-


kin desegokien portzentajea gehienez ere % 10ekoa izatea. Mankomunitate bakoitzak bere eredia proposatuko du bio-hondakinen bilketa bereizirako.

Konpostajea: prebentzioa eta tratamendua

Konpostajea irtenbide ona da hondakin organiko asko baliabide bihurtzeko. Prozesu hori berez egiten da eta, haren bidez, gai organikoek hondarrak konpost bihurtzen dira. Ongarri hori nekazaritza-lanetan eta lore-zaintzan erabil daiteke lurzorua mantengai gehiago izan ditzan eta landareak sendago izan daitezkeen. Konpostajea egokiro egiteko, baldintza hauek behar dira: oxigenoa, hezetasun maila kontrolatua (% 40-60), pH, 6-7,5, eta 35 eta 55 °C arteko tenperatura. Konpostajea irtenbide bat izan daiteke hondakin organikoak prebenitzeko eta tratatzeko.

Hiri hondakinen gai organikoei dagokiez, prebentzioaren ikuspegitik etxeko eta auzoko konpostajea aurreikusi dira, herritarrek, etxebizitzek eta herriek beren hondakin organiko batzuk konposta ditzaten, bilketaren ibilbidera atera baino lehen. Etxeko konpostajea, gaur egun, Nafarroa osoan bultzatzen da, Partzuergoaren eta Nafarroako hondakin mankomunitateen eskutik. Gaur egun, 2.010etik gora familiak beren zabor organikoak eraldatzen dihardute.

Birziklapenaren ikuspuntutik, eskala industrialeko konpostajea lantzen da. Udalek, horrela, hondakin organikoak bildu eta konpost bihurtzen dituzte. Horretan ari da, esaterako, Jurramendiko Mankomunitatea; hots, gaur egun, udaleko eta etxebizitzetako hondakin organikoak gaika biltzen dituen mankomunitate bakarra da, eta, hondakinak mekanikoki eta biologikoki tratatu ondoren, konposta egiten da. Iruñerriko Mankomunitateak, bere aldetik, gaika bildutako hondakin organikoen hondar berdeak Aratzuriko Araztegiaren konpostatzen ditu, hau da, inauste eta lorezaintza hondarrak, bai eta hondakin-uren araztegiaren sortzen diren lohi batzuk ere.



Zenbat hondakin organiko biltzen den, tonaka, eta mankomunitate bakoitzak nora eramaten dituen Iturria: Nafarroako hondakinen partzuergoa.

Elkarrizketa...

Nafarroako Hondakinen Partzuergoko kudeatzailea

Nafarroako Hondakinen Partzuergoa Nilsak kudeatua da eta hondakinetan eskumenak dituzten mankomunitate guztiez osatuta dago, Iruñerriko Mankomunitateaz izan ezik. Nafarroako Gobernuak, izan ere, koordinazio berezia darabil Iruñeko erakundearekin arlo honetan.

Partzuergoak helburu du hiri hondakinen tratamenduari irtenbide homogeneoa ematea eta, diruari dagokionez, irtenbide orekatua, nafar herritarrentzako.

Nola laguntzen du Partzuergoak hondakin organikoak prebenitzen, lege-riak ezarritako lehentasunekin bat? Horri buruzko zer ekintza gauzatzen ari da?

Nafarroako Hondakinen Partzuergoa Composta Sareko kidea da eta, iazkoan, Iruñean, Sarearen Jardunaldi Nazional-tan, Partzuergoak jendaurrean konpromisoa hartu zuen prebentzio-programarekin bat egiteko. Programaren helburuak



Andrés Sola, Nilsako zuzendari-kudeatzailea. Argazkia Luis Azanza.

dira 1.000 biztanle baino gutxiagoko 200 herrietan bizi diren familien % 30ek eta 1.000 eta 10.000 biztanleen arteko 76 herrietako biztanleen % 10ek etxeko konpostontziak izatea. Horrek esan nahi du,

11.000 familiaren lanaren bidez, urtero 2.000 t hondakin organiko ez lirakekeela iritsi behar hondakinak bildu eta tratatzeko sistema publikoetara. Hartara, Partzuergoak konpostontziak erosi eta doan uz-



Egun, Nafarroan, hiru isurtegi baizik ez daude zabalik, eta hirurek ere araudian ezarritako teknikak erabiltzen dituzte, ingurumen arloko baimenek xedatzen dutenarekin bat.

ten ditu, eta, horrez gain, aurreikusita dago herritarrek sentsibilizatu eta prestatzeko kanpainak egitea, Partzuergoak berak eta Mankomunitateek gidaturik; halaber, familia konpost egileei pizgarri fiskalak ezarriko zaizkie tasen aplikazioan. Eskerrak eman nahi dizkiet Partzuergoan sarturik dauden mankomunitate guztiei, buru-belarri aritu baitira lanean eskaerak jasotzen, konpostontziak banatzen eta Partzuergoaren egiten ari den konpostaje-programan parte hartzen duten familiak prestatzen. Espero dut elkarlan handi horri aurrera begira ere eustea.

Nola bilakatu da tratamendua, Partzuergoaren sortu zenetik? Horri esker, zenbat tona hondakin ez dira isurtegiataraino iritsi?

Partzuergoak 2007ko udaberrian sortu zen eta, egia esan, urte hartan, egoera arras desberdina zen. Garai hartan, Bortzirietako, Sakanako, Mairagako, Izarbeibarko eta Erriberagoieneko Mankomunitateek beren hondakinak Ibardin, Arbizu, Romeales, Gares eta Moratielera garraiatzen zituzten, hurrenez hurren. Bost mankomunitate horien artean, guztira, 40.000 tona isurtzen zituzten urtero, eta horrek ingurumenean eragin handia sortzen zuen. Isurtegi horietako bat bera ere ezin zen isurtegiei buruzko araudira moldatu, eta premiazkoa zen guztiak ixtea eta hondakinak tratatzea. Orain, berriz, mankomunitate haietan sortzen diren hondakinak garraiatu eta tratatzen dituzte, Carcar, Culebrete eta Gongorako isurtegiatar eraman aurretik. Hiru isurtegi horiek ingurumeneko baimen integratua dute; beraz, aplikatu beharreko araudia betetzen dute. Mankomunitateetako hondakin guztiak garraiatu eta tratatzeari esker, urtero 90.000 tona hondakin ez dira zuzenean isurtegiatar iristen, eta gaur egun, Nafarroan, hiru isurtegi baizik ez daude zabalik, eta hirurek ere araudian ezarritako teknikak erabiltzen dituzte, ingurumen arloko baimenek xedatzen dutenarekin bat.

Zer teknologia aplikatzen dira Nafarroan hondakin organikoak tratatzeko?

Partzuergoak hiru atal dituen sistema bat osatu du: antolaketa, atal tekniko eta finantzak. Horri esker, Partzuergo barruko mankomunitateetako hondakin gehienak behar bezala garraiatu eta tratatzen dira Culebreteko (biometanizazioa eta konpostajea) eta Carcarko (konpostajea) tratamendu zentroetan, Erriberako eta Jurramendiko Mankomunitateek kudeatutakoak, hurrenez hurren. Nafarroako

iparraldeko mankomunitate batzuetako hondakinak, bestalde, Gongorako isurtegiara eramaten dira, hau da, Iruñerriko Mankomunitateak kudeatzen duen hartara. Culebreteko Tratamendu Zentroan biometanizazio tratamendua aplikatzen zaio hondakinen gai organikoari; hau da, gai organikoari digestio anaerobioa eragiten zaio, mesofilo-fasean (35°C eta 45°C artean), eta horren bidez, gas metano bat lortzen da, energia elektrikoa sortzeko; energia hori, batetik, plantaren energia-kontsumorako erabiltzen da, eta, bestetik, sare orokorrera bidaltzen da. Horrez gain, "digestatza" esaten zaion produktu bat sortzen da; produktu hori lehortu eta hondar berdeekin konpostatzen da (zurarekin, inauste-hondarekin), eta, horrek konposta ematen digu, 3.000 tona inguru urtean, lorezaintzan erabiltzeko eta lurzorua hobetzeko, paisaiak lehengoratzeko aldera. Carcarko plantan, bestalde, Culebretekoaren antzeko sistema erabiltzen da, baina biometanizaziorik gabe. Laburbilduz, gai organikoak konpostajearen bidez prozesatzen da; zenbaitetan, mankomunitatearen ingurunean sortzen diren beste gai organiko batzuekin batera (Aratzuriko lohiak, nekazaritzako elikagaigintzako hondakinak); azken emaitza beste plantan lortzen denaren antzekoa da eta antzeko erabilera ere baditu.

Nafar herritarrek tasa bat ordaindu behar dute kudeaketa eta tratamendua finantzatzeko. Nola dago banatuta tasa hori? Zer ataletara bideratzen da?

Partzuergoko erabiltzaile guztiei tasa berbera aplikatzen zaie, eta, 2012. urterako, 46,32 euro izanzen da, familia eta urte bakoitzeko. Diru horri esker, aurre egiten zaie garraioak dakartzan gain-kosteei, mankomunitate batzuk oso urrun baitaude tratamendu-zentroetatik; eta, diru horri esker, era berean, zentroetako tratamendu-prozesuak bideragarri egiten dira, mankomunitate titularrei dagozkienak baino lan-karga handiagoak dituztelako. Partzuergoaren tasa diseinatu da, go, abonatu guztiek tarifa berbera ordain dezaten, alde batera utzirik zer mankomunitatean dauden izen emanik. Eta, etxekoez bestelako erabiltzaileentzako, tarifa hiru multzotan modulatu da, hondakin gutxiago edo gehiago sortzeari lotuta, haien jardueren arabera; tarifak, zehazki, urteko 57,90 (etxekotzat jotzen diren hondakinentzako) eta 926,40 euroren (hondakin asko sortzen dituztenentzako) artean daude. Europako printzipioa aplikatzen ahalegintzen gara: "kutsatzen duenak ordaintzen du".

Etorkizunari dagokionez, zeintzuk izanen dira ekintza nagusiak? Eta, zer erronka izango ditu Partzuergoak?

Honatx erronkak:

- Bilketa-sistemari dagokionez, gaika biltzen den gai organikoak kudeatzea, eta, horrekin batera, tratamendu-sistema deszentralizatuak ezartzea, konpostajearen bidez.
- Etxeko eta auzoko konpostajea hedatzea, horrenbeste hondakin ez sortzeko; beraz, prebentzioa sustatzea.
- Zerga-neurriei buruzko gogoeta sakona, programa hori noranahi zabaltzea sustatzea.
- Beste hondakin-ildo batzuk ere partzuergo bidez kudeatzea, edota, are gehiago, Partzuergoak prebentzioa eta sentsibilizazioa bultzatzeko politika bateratuak ezartzea, eta azpiegiturak kudeatzea; garbiguneak, esaterako.
- Azpiegitura guztiei jarraipena ematea, guztiek ere ongi funtzionatzen jarraitzea eta behar diren finantza-baliabideak ongi kudeatzea.
- Barne kohesio instituzionalari eustea, eta, are gehiago, sendotzea, Iruñerriko Mankomunitatea sartzekotan, edota harekin elkarlanean aritzea, NHKPin Nafarroa osorako finkatutako helburuetara iritsi beharra ezarrita baitago.

Argibideak:
www.nilsa.com

Elkarriketa...

Iruñeko Mankomunitateari



Auzoko konpostajea Olatz-Subitzan.

Nola sortu zen Iruñerriko Mankomunitateak antolatutako lehen esperientzia, auzoko konpostajeari dagokionez? Zer ibilbide egin du?

Oteitzako kontzejuaren ekimez sortu zen, Berriobeitiko Udalerrian; 2009an, zehazki, kontzejuak eskatu zuen herrian sortzen ziren inhauste-hondarrak kudeatzeko. Orduan, ikusi genuen auzoko konpostajea aukerabiderik egokiena zela. Orain, dagoeneko zortzi herri egiten dute auzoko konpostajea esaten zaiona, eta, lanean ari gara, aurtengoan herri gehiagok parte har dezaten (Erreniega mendiko hegoaldea, Taxoare, Noain...).

Nola lortu duzue herriarrek parte hartzea eta boluntarioak prestatzea?

Sentsibilizazio saioak eta azalpenak emateko solasaldiak egin ditugu, postaz ere argibideak bidali ditugu, etab. Boluntarioekin, berriz, lehenik eta behin, prestakuntza teorikoa lantzen dugu, gaiari buruzko dokumentazioa ematen diegu eta, ondotik, bisita bat egiten da auzoko konpostajearen diharduen herri batera, esperientzia bertatik bertara ikusteko. Aldian behin, gainera, barne jardunaldiak antolatzen dira, herrietako master-composterren artean, hau da, gaiaz dakitenen artean, esperientziak trukatzeko.

Zein dira kanpainen alde sendoak? Eta, zer da sendotu beharrekoa?

Aipatu behar da jendeak oso ongi hartu duela jarduerak; interes handiz, gainera. Eta nabarmentzekoa da, halaber, batek, boluntarioen eta master-composterren laguntza, eta, bestetik, parte-hartzaileak pozik daudela. Sentsibilizazioa, informazioa, jarraipena eta aholkularitza, horra hor sendotu beharreko alderdiak.

Zer-nolako etorkizuna antzematen zaio Iruñerriko Mankomunitateak antolatutako konpostajeari, hala etxekoari nola auzokoari?

Etxeko eta auzoko konpostajea, biak ala biak, Iruñerriko Mankomunitatean erroto dira, eta, urtero, udaberrian egiten ditugun kanpainen bitartez sustatuko ditugu. Beste udalerririk batzuk ere hasiko dira auzoko konpostajea egiten, dagoeneko ezarria duten lortu duten esperientziak ederreki lagundurik. Etxeko konpostajeari dagokionean, lorategia edo baratzea duten etxebizitzak gehienetara iritsi nahi dugu. Bitartean, jendea sentsibilizatzeko mezuak indartu behar ditugu eta, era berean, gaur egun parte hartzen ari diren jarraipena areagotu.

Itzarbeibarko Mankomunitateari



Izarbeibarren egindako konposta, jendearen artean banatzen.

Nola, noiz eta zergatik hasi zituen Izarbeibarko Mankomunitateak etxeko konpostajearen aldeko kanpainak?

2006an hasi ginen, ikastetxeetan. Ondotik, oinarri horrekin, etxebizitzetan ekin genion, eta horretan gabilta. Argi genuen jendea esan behar zitzaioela oso txarra zela horrenbeste hondakin sortzea, beharrezkoa zela den-denek parte hartzea eta ingurumen-geziriketa sustatzea. 2006az geroztik, 270 familiarengana iritsi gara.

Nola antolatu ziren ikastetxeetako kanpainak?

Hasteko, solasaldiak eman genituen. Ikasleek beren etxeko hondakin organikoak ekarri eta patioetako konpost-ontzietan uzten zituzten; Mankomunitateak ikastetxe guztietan jarritako konpost-ontziak ziren. Mankomunitateak, astero, ikastetxeetan bildutakoa pisatu eta horren jarraipena egin zuen. Bukaeran, konposta banatu zen. Ikastetxeetan, 4.000 kg ere bildu genituen.

Nolako hondakin kopuruak konpostatu dira?

Milatik gora lagun eta hiru ikastetxe ari dira konpost egiten. Izarbeibarren, gutxienez 250 gramo murrizten ari gara, biztanle eta egun bakoitzeko.

Zer ekarpen egiten dio etxeko konpostajeak hondakin-kudeaketari?

Gogoeta-ariketa etengabea da. Familia batek, gainera, gai organikoa gainerakotik bereizten badu, nola ez ditu, bada, gainerako hondakinak bereiziko?

Konpost egiten duen jendea tasak murrizten dizkiozue. Horrek jende gehiago bultzatzen al du?

Gure Mankomunitatean konpost egiten duten lagun eta familia gehienak tasa murriztu aurretik hasi ziren. Nola-nahi ere, jende horren lana aitorzeko egin genuen.

Nondik nora ikusten duzu etxeko konpostajearen geroa?

Arauak ezinbestean erreferentzia dira: hau da, Hondakinei buruzko Esparru Zuzentaraua, Hondakinei buruzko Estatuko Legea eta Nafarroako Hondakinak Kudeatzeko Plan Integratua. Kudeaketan zer aukerak duen lehentasuna zehaztu dute, eta, lehen tokian, prebentzioa ageri da. Aurrera begira, jarduera hori zabaldu eta sustatu behar da. Nire iritziz, administrazioek jarduera ederreki bultzatu, zabaldu eta haren jarraipena egin beharko lukete.

Goza ditzagun festak, baina burua erabilita

Ekintza txikiak lagungarriak dira hondakinak murrizteko eta herritarrek ingurumenari begira sentsibilizatzeko



Jai iraunkorrekin bat egin duten Udaletako, Mankomunitateetako eta Nafarroako Gobernuako ordezkariak.

Nafarroan, herriko jaiez mintzo garenean, algara, josteta eta kaleetako festa giro ederra etortzen zaizkigu gogora, eta, horrekin batera, lagunartean, etxe-koekin, auzokideekin egiten ditugun otordu ederrak, bai eta egun berezi horiek buru-belarri bizi nahi dituzten kanpoko bisitariak ere. Orain, udalek eta herritarrek lagundurik, herriko festak kontsumo arduratsuari lotuta ageri dira. Izan ere, dagoeneko, herri aunitz baitaude jai iraunkorrekin konpromisoa hartuta; ekimen horri esker, jendeak festez zentzuz gozatzen baitu, hau da, burua erabilita.

Edalontzi berrerabilgarriak erabiltzea, herri bazkarietan eta herri afarietan tokian tokiko janaria jatea, garraio publikoa erabiltzea ('Voy y Vengo', 'Jaibusa'), festa-giro handieneko lekuetan edukiontzi gehiago jartzea, birziklapena bultzatzeko... Horra hor, besteak beste, zer egiten den herriko festetan hemen, Nafarroan, hondakin gutxiago sortzeko eta birziklapena handitzeko. Horrek guztiak, gainera, aukera ematen digu herritarrek ere gehiago sentsibilizatzeko; keinu edo

ekintza txikiak dira, baina dagoeneko, ohitura bihurtzen ari dira.

Gero eta udal gehiago ari dira ekimenarekin bat egiten, herriko festak zentzuz gozatzeko, hau da, ingurumenarekin bat eginda. Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuak eta ECOVIDRIOK elkarrekin sustaturiko ekimena da, CRANA-Nafarroako Ingurumen arloko Baliabide Zentroaren bitartez, eta hainbat mankomunitateren eta udalen sostengua jaso du.

Prebentzioak lehentasuna du hondakinak kudeatzeko hierarkian, Hondakinei buruzko 2008/98/EE Europar Zuzentarauak ezarritakoarekin bat. Nafarroako Hondakinak Kudeatzeko Plan Integratuak, gainera, helburu hau ezarri du: hots, hiri hondakinak % 10 murriztea, eta hiri hondakinen % 52 birziklatzea.

Helburua, orain, hurbilago dago, Nafarroako bost mankomunitatek eta hamalau udalerririk herriko festa iraunkorren ekimenarekin bat egin dutelako. Honatx udalerririk: Altsasu, Antsoain, Aranguren, Atarrabia, Artaxoa, Auritz, Aurizberri, Azagra, Bera, Berriozar, Gares, Luzaide eta Martzilla.

Neurri txikiak, emaitza handiak

Hainbat ekintza egin dira udalerririk horietako jaietan. Beste edozein udalek eta/edo erakundek ere neurri berberak har ditzake. Azken finean, neurriak keinu txikiak dira, baina den-denak oso lagungarriak, hondakinak murrizteko, hondakin gehiago birziklatzeko eta herritarrek gehiago sentsibilizatzeko. Neurriak probetxugarriak izanzen badira, funtsezkoa da ahalik eta bitarteko gehienak erabiltzea jendeak horren berri izan dezan. Era berean, oso garrantzitsua da hondakin kopuru handiak sortzen dituzten elkarrekin, entitateekin eta bestek jai iraunkorrekin bat egiten diren ekintza guztietan parte hartzea.

Hona hemen jai iraunkorretako neurriak:

● **Material birziklatuak eta/edo birziklagarriak erabiltzea:** taberna eta txosnetan edalontzi eta ontzi berrerabilgarriak erabiltzea, bai eta ur-pitxer berrerabilgarriak eta gai birziklatuekin egindako aho-zapiak ere.

● **Produktu ekologikoak eta bidezko merkataritzako produktuak erabiltzea.**

● **Hurbileko elikagaiak erabiltzea.**

● **Hondakinak:** beira gaika hobeki biltzearen aldeko kanpainak egitea, beira asko sortzen dituztenei begira; edukiontzi gehiago paratzea; edukiontzi horiek non jarrita dauden seinaleztatzea; herri-otorduetan hondakina bereiztea.

● **Mugikortasuna:** Jaibusa erabiltzea.

● **Gizarte-neurriak:** genero-indarkeriaren aurkako kanpaina; irabazi-asmorik gabeko entitateak kontratatzea.

● **Bestelako ekintzak:** merkataritza-zozketa iraunkorra (hurbileko merkataritza sustatzea); azoka eta iraunkortasuna; ingurumenari buruzko marrazki-lehiaketa; material berrerabilgarriak eta/edo birziklatuak oparitzea.

Neurrien artean, ekimen batzuk dira aipatzekoak; esaterako, Garesko eta Artaxoako koa-drilen areto partikularrek engeiatzea; besteak beste, Aranguren Ibarreko herriko festetan bidezko merkataritzako produktuak erabiltzea; eta, kolore desberdineko poltsak banatzea, Antsoaingo eta Berriozarko kaldereteetan hondakinak bereizteko

Edalontzi berrerabilgarriak erabiltzea jai iraunkorretako jarduerarik zabalduena da



Edalontzi erabilgarriei esker, hondakin gutxiago sortzen dira, eta, horrez gain, jarduera hori jendea sentsibilizatzeko eta komunikaziorako tresna bat ere bada, hainbat eragile engeiatzen ditu eta, era berean, azpimarratu egiten du holako edalontzien erabilera sustatzen duten entitateek iraunkortasunarekin duten konpromisoa.

Edalontzi berrerabilgarrietan duten esperientzia partekatu zuten hainbat entitatek eta erakundek, joan den azaroaren 23ko jardunaldi batean, Hondakinak Prebenitzeko Europako Astearen baitan. Zehazki, Antsoain, Noain, San Adrian eta Atarrabiako udalak bildu ziren, eta, horiez gain, Erdialdea Garatzeko Partzuergoa eta Ikastolen Elkarteak ere bai.

Jardunaldian esandakoekin bat, edalontzi berrerabilgarrien kontu honekin, badira hainbat diseinu, hainbat material, bai eta hainbat kudeaketa molde ere. Nabarmendu egin zen, bestalde, edalontziak itzuli egin behar direla, horixe dela egiazko berrerabilpena, eta jendeari edalontziak itzultzeko eskatu egin behar zaiola. Ondorioen artean, gainera, batzuk eta besteak bat etorri ziren esaterakoan komunikazioa hobetu behar dela, eta, funtsezkoa dela eragile guztiak engeiatzea. Gomendioen artean, onena da inolako logotipo determinanterik ez jartzea (urtea, esaterako), zaharkituak gelditzen baitira eta edalontziak erabilezin bihurtzen dituztelako aurrera begira.

Argibideak: www.crana.org

Elkarriketa...

ANTSOAINGO Udala

Antsoain udal aitzindarietako bat da, jai iraunkorrekin hartua duen konpromisoari dagokionean. Nola sortu zen konpromisoa?

2008an, Aalborgeko Konpromisoak sinatu genituen eta Tokiko Agenda 21 bultzatu genuen; iraunkortasunaren aldeko konpromisoa hartu genuen, beraz. Hasteko eta bat, herriko tabernetan edalontzi berrerabilgarriak sartu genituen, eta denetarikoa emaitzak izan ziren. 2009an, berriz, lankidetzaz hitzarmen bat sinatu genuen Nafarroako Ingurumen arloko Baliabide Zentroarekin eta Iruñerriko Mankomunitatearekin, jai iraunkorrak egiteko; aitzindariak izan ginen.

Zer-nolako ekintza nagusiak egin dira urteotan?

Besteak beste, paper birziklatua erabiltzen dugu, bai eta teknologia berriak ere; jendea berdintasunean sentsibilizatzeko opari bat banatzen dugu, kontsumo arduratsuen eta hondakin irizpideak uztartuta; produktu ekologikoak, hurbilekoak eta bidezko merkataritzakoak sustatzen ditugu, plater



berrerabilgarriak ere, hondakinak bereiztea...; "gune berdeak" jartzeaz gain, kaleplazetako garbiketa ere areagotu egiten dugu; txosnetan edalontzi berrerabilgarriak erabiltzen dira; garraio publikoa erabiltzea bultzatzen da; eta, gauza berri bat ere egin dugu, hots, herriko dendeekin batera antolatutako kanpaina, saski iraunkor bat zozkatzeari buruz. Horrez gain, Nafarroako Berdintasunerako eta Familiarako Institutuaren *Eta, jaietan, zer?* kanpaina ere bultzatu genuen.

Bete al zituen helburu guztiak herriko dendeekin batera egindako kanpainak?

“Antsoainen erostea iraunkorra ere bada” kanpainak Antsoaingo merkataritza sustatu nahi izan zuen, erosketa iraunkorrak egiteko modua baita, bidezko merkataritza, artisautza-merkataritza eta ekologikoa ere iraunkorrak diren bezala. Kanpainak arrakasta izan zuen, 83 dendak parte hartu baitzuten. Haietatik, % 33,73k saski iraunkorren zozketan lagundu zuten. Bestalde, denden % 66,63ren iritziz, kanpaina herriko merkataritzaren aldekoa izan zen, eta % 72,22k bezeriaren gaineko balorazio ona egin zuen.

Animatuko al zenituzke udalak ekintza mota horiekin bat egitera?

Bai. Onurak asko baitira, alde guztietatik begiratuta; kanpaina egiteak dakartzan kostuak baino askoz ere handiagoak.

Argibideak:
www.ansoain.es

Nafarroa Oinez, ekitaldi iraunkorraren adibidea

Nafarroa Oinez jende gehien biltzen duen nafar ekitaldietako bat da. Milaka eta milaka lagunek, izan ere, parte hartzen dute josteta, elkartasuna eta aldarrikapena uztartzen dituen ekitaldian. Jaiak, jakina, aztarna ekologiko bat sortzen du; baina eguna gero eta iraunkorragoa izateko ekimenei esker, aztarna hori gero eta txikiagoa da.

Nafarroa Oinez 2011 Tafallan egin zen, joan den urriaren 16an. Herriko Garcés de los Fayos Ikastolak antolatutik, eguna arrakastatsua izan zen benetan, jendetza handiak parte hartu baitzuen (45.000 lagun inguruk). Jaia gero eta iraunkorragoa izateko egin ziren ekintzek, era berean, oso emaitza onak eman zituzten.


50.000 edalontzi erabiltzea ekidin zen

Nafarroa Oinez 2011ri dagokionez, baloratu egin da ekitaldirako garatu zen ingurumen-ekintzarako plana, eta, hartara, irizpide hauek erabili ziren: mugikortasun iraunkorra, kontsumo arduratsua, zentzuz kontsumitzea eta ingurumen-heziketa.

Kalkuluen arabera, edalontzi erabilgarriak erabiltzeari esker, ez dira erabili erabilera bakarreko 50.000 edalontzi. Aurreko ekitaldian bezalaxe, 2011koan ere zenbat hondakin sortu ziren neurtu zen, eta, hori, zailtzarrik gabe, tresna garrantzitsua da neurrien emaitzak baloratzeko. Horrela, jakin badakigu askoz ere ontzi, paper, kartoi eta beiraki gutxiago jaso direla, eta, hondakinak, guztira, % 35 murriztu direla.

Abenduaren hasieran, Nafarroa Oinezi sarri bat eman zitzaion klima-aldaketaren aurka erakutsitako konpromisoarengatik, "Energia-Apustuan" parte hartzen baitu. Landa Garapeneko Departamentuak, CRANAren bidez, bultzatutako ekimen bat da. Epaimahaiak aintzat hartu zuen Oinezerako garatu zen ekintza-plana, irizpide hauek hartu baitziren kontuan: mugikortasun iraunkorra, kontsumo arduratsua, hondakinak gutxitzea, zentzuz kontsumitzea eta ingurumen-heziketa.

NAFARROA OINEZ: HONDAKIN BILDUA (KG)



Nafarroa Oinez 2011/2010; hondakin sorreraren taula konparatiboa

Oinez 2011ren ingurumen-erantzukizuna

Nafarroa Oinez 2011k ingurumenarekin hartutako konpromisoak bestelako ekintzak ere ekarri ditu:

● **Garraio iraunkorra:** jendea garraiatzeko sarea, oinezkoentzako eremua.

● **Euskarriak paper birziklatuan eta digitaletan.** Material berrerabiliak beste edizio batzuetan.

● **Hondakinak:** edalontzi berrerabilgarriak, edukiontzi multzokatuak, paperontzi gehiago, plater, ontzi eta mahaitresna berrerabilgarri gehiago, eta sobratu zen janaria Paris 365 jantoki sozialera ematea.

● **Baliabideak arrazionalizatzea:** jaia egun argiz egitea, argi naturala baliatzea; bazkariko ura pitxerretan zerbitzatu zen, txorrotako ura erabilia.

● **Ur-kontsumoa:** 2011ko Oinezean, lehen aldiz, zenbat ur kontsumitu zen neurtu zen; beraz, adierazle baliosoa da hurrengo ekitaldietarako. Guztira,

%35
hondakin
gutxiago

DATUA

gune guztietan, 61 metro kubiko kontsumitu ziren.

● **Isurpenak konpentsatzea:** festak sortutako CO₂ isurpenak konpentsatzeko, baso mediterraneo bat sortu nahi da, 6.700 artez eta erkametez osatua Tafallako Monte Planoko 8,3 hektareatan. Egitasmoari Oinez Basoa deritza: ekimen aitzindari horretan lankide dira Nafarroako Unibertsitate Publikoko Natura Ingurunearen Zientziak Saila eta Nafarroako Unibertsitateko Landare Biologia Saila, bai eta CRANA bera ere.

www.yonolotiro.es, berrerabilpenerako leiho irekia

Web berria herritarrei, enpresei eta erakundeei zuzendua dago



Weba aurkezteko ekitaldia

Enpresa batek surf taula bat aldatu nahi du kanpoaldeko idazkun baten truke; Izarbeibarko eta Mairagako Mankomunitateek edalontzi berrera-bilgarriak eskaintzen dizkiete udalei herriko jaietarako; pertsona batek haur-gurditxo bat jarri du salgai, eta beste batek idazmakina bat oparitu nahi du. Holako kontuak eta askoz ere gauza gehiago aurkituko dituzu www.yonolotiro.es webean.



Herritarrek, enpresek eta erakundeei web berri bat dute haien eskura berrerabilpena bultzatzeko. Nafarroako Gobernuak eta Iruñerriko Mankomunitateak, izan ere, yonolotiro.es abiarazi dute, hau da, produktu mota oro trukatzeko aukera ematen duen atari berria; bitarteko hauta da hondakinak murrizteko eta prebenitzeko; bide egokia, herritarrek kontsumo arduratsuaz kontzientziatzeko eta elkartzuna agertzeko. Web berriak, izan ere, harremanetan jartzen ditu produktu bat behar ez duten pertsonak eta produktu hori eskatzen dutenak.

2008/98 Zuzentarauaren arabera, hondakinak eta behar ez ditugun produktuak berrerabili eta konpontzea sustatu beharra dago, eta Nafarroako Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralak, bere aldetik, tamaina handi-

ko hondakin % 10 berrerabili beharra ezarri du. Zalantzarik gabe, yonolotiro.es atari berriak berrerabilpena sustatzen du, eta hori ona da herritar guztientzat.

Ezaugarriak

Web CRANAK eta Iruñerriko Mankomunitateak garatu dute, gaztelaniaz eta euskaraz dago, eta joan den azaroaren bukaera aurkeztu zen, Hondakinak Prebenitzeko Europako Astearen baitan.

Yonolotiro.es weba, egia esan, aise erabiltzen da. Hara: barruan sartu eta erregistratuko gara, eta ondotik, iragarkia txertatuko dugu: hau da, zer salerosi nahi dugun, zer trukatu eta abar. Webak eskaintzen duen sailkapenaren arabera, gauza asko egin ditzakegu; truke bat, opari bat, bilake-

ta bat, mailegu bat, alokairu bat, salmenta bat, edo eskaintza bat zerbait partekatzeko: adibidez, bidaia bat autoz Lizarratik Iruñera. Herritarrek ere denbora-bankua dute eskura trukaketak egiteko, eta dohaintzak zabalik daude enpresa eta organismoentzako. Iragarki guztiak, halaber, facebook-en eta twitterren argitaratuta ageri dira.

Webak gauza berritzaileak ekarri ditu, antzeko beste atari batzuen aldean. Batetik, nori zuzentzen zaion kontuan hartuta, esan behar da, lehen aldiz, Nafarroa osoko gizabanakoen, erakundeen eta enpresen arteko trukaketak sustatzen direla. Bestetik, yonolotiro.es webak zenbatu nahi du zer ekarpen egiten dion atariaren bidez gauzatzen den berrerabilpenak hondakin prebentzioari. Horrez gain, hondakinak kudeatzen dituz-

ten mankomunitate eta entitateen lana zabaltzeko tresna bat ere bada, eta Nafarroa osoko garbiguneen eta tamaina handi-koak biltzeko zerbitzuen gaineko egutegia eta ordu-tegiak dakartza.

Era berean, Nafarroan egiten diren gisa bereko ekimenak zabaltzea sustatu nahi da, eta, badago hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko informazio zabala eskuratzetik hondakinei buruzko Aldizkariaren eta Blogaren bitartez. Galdetegi baten bidez, gainera, nekazaritza alorreko elikagaigintzan diharduten enpresek beren soberakinak Elikagai Bankuari ematen ahal dizkiote, betiere Iruñerriko Mankomunitateak antolatua duen zerbitzuaren bidez.

yonolotiro.es askoz ere gehiago da, herritarren kontzientziei eragin nahi baitie, herritarren sentsibilitateak piztu nahi ditu, kulturaldaketa bat eragiteko eta bestelako balioak zabaltzeko: kontsumo arduratsua, hondakinak prebenitu eta birziklatzea. Horrez gain, azpimarratu behar da berrerabilpena ona dela ingurumena babesteko, bai eta herritarren arteko eta erakundeen arteko elkartzuna sustatzeko ere.

Honatx helbidea:
www.yonolotiro.es

Elkarrizketa...

EMAUSKO TRAPEROAK ERAKUNDEARI

Nafarroako Emausko Traperok berrogei urte bete dituzte 2012 honetan. Zaborretatik datozen gauzak eta materialak biltzen, sailkatzen, berrera-biltzen eta birziklatzen dihardute; lan hori, gainera, hazten ari da, eta ingurumenarentzako oso onuragarria izateaz gain, lanpostu aunitz ere sortzen ditu. Hondakinak Berreskuratze eta Birziklatze Zentro bat daukate, bai eta bigarren eskuko sei denda ere, gauza berrerabiliak saltzeko.

Nor dira Nafarroako Emausko Traperok, eta zer egiten dute?

Nafarroako Emausko Traperok autonomia mailako Fundazio bat dira eta elkartasuna dute helburu nagusi, jarrera politikoa gisa, eta, jarrera praktikoa gisa. Gaur egun, 200 lagunok baino gehiagok osatzen dugu, eta jendearen ezaugarri garrantzitsuen dibertsitatea da.

Zaborretatik datozen gauzak eta materialak biltzen, sailkatzen, berrera-biltzen eta birziklatzen dihardugu.

Zertan dira desberdinak berrerabilpena eta birziklapena?

Gauza guztiak zerbaitetarako sortu dira; bada, zaborretako gauza bakoitzari berriz ere hasierako xede hori edo antzeko erabilera bat ematea da berrerabilpena; aulki batek, esertzeko balio dezala; arropagarbigailu batek, garbitzeko, etab. Birzi-



klapena, berriz, hauex da: gauzen osagaiak (gai organikoa, aluminioa, kobrea, plastikoak, burdina, papera, ehuna...) sailkatzea, haien bizi-zikloa errepikatze (konpost egitea) edo produktu berbera fabrikatzeko (aluminioa, kobrea, plastikoa, papera...).

Zer behar da berrerabilpenaren aurre-jotzeko? Zein dira erronkak?

Funtsezkoa da jendea prebentzioan heztea eta daukagunarekin bizitzeko ikastea; eta, era berean, kontsumismoaren aurka borrokatzea eta fabrikatzaileak behartzea gauzak iraunkortasunerako diseinatzera ("bizia, zalantzarik gabe, irabazia baino garrantzitsuagoa da").

Urteko txostenaren zertzelada batzuk

- Bildutako hondakin kopurua: 10.400.296 kilo hondakin (tamaina handikoak, papera, kartoia, hondakin elektrikoak eta elektronikoak, arropa...). Gehien biltzen diren hondakinak tamaina handikoak dira (% 36); gero, tresna elektrikoak eta elektronikoak (% 24), eta papera eta kartoia (% 20).

- Tresna elektrikoak eta elektronikoak: guztira, 2.486.269 kg bildu dira; aurreko urtean baino % 18 gutxiago. Hau da, 3,9 kg/bizt-urteko.

- Berreskuratze datuak, % 82; % 4 berrerabilia, eta % 14, errefusatua.

- Ingurumenarentzako onurak: 2010ean berreskuratutako materialei esker, ez dira atmosferara 4.147.286 kg CO2 isuri.

Datu gehiago:
www.emaus.net

2020rako, tamaina handiko hondakinen % 10 berrerabili behar da

Nafarroako Hondakinak Kudeatzeko Plan Integratua 2010



Bigarren eskuko merkatua, Berbintzanan

Nafarroako Hondakinak Kudeatzeko Plan Integratua 2010

Udal, mankomunitate eta entitate batzuk bigarren eskuko merkatuen bidez ari dira berrerabilpena bultzatzen; esate baterako, Berbintzanan egindakoa, Izarbeibarko Mankomunitateak Ingurumenaren Mundu Egunean antolatutakoa.

Guztira, 35 erakundek parte hartu dute Hondakinak Prebenitzeko Europako Astea, Nafarroan

51 jarduera egin dira ekodiseinua, berrerabilpena eta konpostajea sustatzeko eta herritarrak sentsibilizatzeko



Bremikonpostajearen aurkezpena



Janari-hondarrek egingako sukaldaritza



Hondakinen kudeaketa ezagutzeko ekitaldia



Edalontzi berrerabilgarriak erabiltzea



I. Ekodiseinu Lehiaketa



TEEHen erakusketa Leclerc-en



Konpost banaketa



Ikasleentzako jarduerak

Erakunde eta jende askok berriro erakutsi dute hondakinak murrizteari eutsi egin nahi diotela, bai eta hondakinek eragiten dituzten ondorioak murrizteari ere. Izan ere, hondakin mankomunitateak, erakunde ofizialak, enpresak, ikastetxeak herritar erakundeak eta gizarte taldeak izan dira parte-hartzaile Hondakinak Prebenitzeko Europako Astea, hemen Nafarroan; 35 erakunde guztira, 51 jarduera egiteko.

Hondakinak Prebenitzeko Europako Astea joan den azaroaren 19tik 27ra egin zen, eta jarduerak hainbat ardatz izan zituzten: ekodiseinua sustatzea; jendea sentsibilizatzea elikagairik zaborretara ez botatzeko; berrerabilpena; etxeko konpostajea eta herritarrak sentsibilizatzeko ekintzak. Esan behar da jarduera ugari egin zirela.

Ekimenak argi erakutsi du gero eta entitate, erakunde, talde, enpresa eta herritar gehiago lotzen ari zaizkiola hondakinen prebentzioari, hau da, hondakinen kopurua, arriskua eta eragina murrizteari.

2009an abiatu zenetik hona, 65 entitatek parte hartu eta hainbat jarduera egin dituzte, guztiak ere jendea hondakinen prebentzioaren inguruan sentsibilizatzeari begira. Hirugarren ekitaldian, guztira, 51 jarduera egin dira, eta, 35 entitatek parte hartu dute.

Berritasunak

Ekimenak iraun bitartean, Nafarroa osoan jardunaldiak, tailerrak, ikus-entzunezkoen emanaldiak, solasaldiak eta jendea sentsibilizatzeko ekintzak egin ziren. Alde horretatik, hainbat jarduera guztiz berritzaileak izan ziren. Esate baterako, sukaldaritza-tailerrean, janari-hondarrak errezeten bidez nola aprobetxatu irakatsi zuten; hainbat mankomunitatek zinema eta gogoeta uztartu zituzten; Nafarroako Gobernuak, bere aldetik, yonolotiro.es webgunea aurkeztu zuen, hau da, berrerabilpena sustatzeko webgunea eta, era berean, diseinu grafikoa ikasten ari diren ikasleentzako I. Ekodiseinu Lehiaketako sariak banatu ziren.

Erakunde parte-hartzaileek Hondakinak Prebenitzeko Europako Saria irabazteko aukera izanzen dute, jarduerarik berritzaileen, bitxien eta sentsibilizatzaileenak nabar-

mentzeko. lazkoan, Ekonomia Sozialaren eta Solidarioaren Berreskuratzaileen Espainiako Elkartearen lana hartu zen aintzat, eta, Nafarroako Emausko Traperok elkarte horretako kide dira.

Hondakinak kudeatzeko hierarkia

Hondakinak Prebenitzeko Europako Astea Hondakinei buruzko 2008/98/EE Zuzentaraua onestearen ondotik jaio zen. Arau horren arabera, prebentzioak lehentasuna dauka hondakinen kudeaketan, ahal den hondakin gutxien sortze aldera. Nafarroako Hondakinak Kudeatzeko 2010-2020 aldiko Plan Integratuak, gainera, helburu hau ezarri du: hiri hondakin solidoen % 10 murriztea. Europako Batzordeko LIFE + programak Europako Aste hori bultzatu du, eta, Nafarroan Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentua da sustatzailea CRANaren bidez, hau da, Nafarroako Ingurumen arloko Baliabide Zentroaren bitartez, betiere hondakin mankomunitateekin elkarlanean.

Argibideak:
www.crana.org;
www.ewwr.eu

Hondakinak ekodiseinuaren bitartez prebenitzea

Originaltasuna nagusi, ikasleentzako I. Ekodiseinu Lehiaketan



Ikasle sarituak eta Nafarroako Gobernuako eta Diseinu Eskoletako ordezkariak

Ekodiseinua metodologia bat da eta produktu baten diseinuari aplikatzen zaio; hau da, ekodiseinuak kontuan hartzen du zer-nolako eragina izanen duen produktu batek ingurumenean; bere bizitza guztian, gainera. Ekodiseinuak, hartara, hondakinak prebenitzeko irizpideak erabiltzen ditu. Diseinatzaile grafikoak sentsibilizatzeko eta haien lanbidean aipatu irizpideak erabiltzea sustatzeko, Nafarroako Gobernuak ikasleentzako I. Ekodiseinu Lehiaketako sariak banatu zituen. Epaimahaikideen esanetan, lanak originalak izan ziren, eta etorkizuneko profesionalak ekodiseinuaren aldeko apustu garbia egin zuten.

Ikasleentzako I. Ekodiseinu Lehiaketako epaimahaiaren lana ez zen batere erraza izan, hamabi proiektu aurkeztu baitziren, guztiak ere ESNE-Unibertsitateko Diseinu Eskolako eta Corellako Arte Eskolako diseinuko 2. mailako ikasleek landutakoak. Epaimahaiak lanik onena aukeratu behar izan zuen.

Lehen saria Lorena García Ortizek eskuratu zuen, "Cangilón multusos" izenburuko proiektuarekin. Irabazlea Corellako Arte Eskolako da. Epaimahaikideek hainbat gauza nabarmendu zituzten, lehen saria ematekoan: hots, produktuaren bizitza luzatzen duen ontziaren erabilerak, produktua bera errazago birziklatzeko; ontziak hartzen di-

EKODISEINU IRIZPIDEAK DISEINU GRAFIKOAN

• Ahalik eta material gutxien erabiltzea

- Ahal den material gutxien erabil da-din sustatzea, bai eta ahalik eta material mota gutxien erabiltzea ere.
- Erabat erabiltzea euskarri digitala, paperaren ordeza.
- Tinta gutxiago erabiltzea.

• Gai toxiko eta/edo arriskutsu gutxiago erabiltzea

- Landare-oliozko tintak erabiltzea.
- Kola, itsasgarri eta berniz gutxiago erabiltzea, eta, haien ordeza, tolesdurak eta grapak erabiltzea, eta landare-hariarekin jostea

• Material motak: material berrerabiltgarriak, birziklatuak eta birziklagarriak erabiltzea.

• Produktua ondoren berrerabiltzea (trokelak erabiltzea), produktu grafikoei bigarren bizitza bat emateko.

• Hondakinak kudeatzea: material bakarreko produktuak sortzea, % 100en birziklagarriak.

• Informazioa: bezeroari, produktuaren ingurumen-alderdien ingurukoa, eta, kontsumitzaileari, produktuarekin, hondakin gisa, zer egin jakiteko.


tuen forma desberdinak, zer erabilera aukatzen den; eta, material erabileretan egindako ikerlana. Saria, zehazki, proiektuaren erreproduktzioa izan zen, bai eta diploma bat ere. Ingurumen Departamentuko eta CRANako ordezkariak izan ziren epaimahaiakideak, bai eta ekodiseinuaren arloko aditu bat ere. Lehen sariatz gain, Corellako Arte Eskolako hainbat ikaslek egindako lanak ere nabarmendu ziren: Laura Noain Mañasen argazki-marko eraldagarria; Susette Echevarría Marcosen bi dimentsiotako euskarri grafiko bihurtgarria; José Luis Carcavilla Sadaren lana ere azpimarratu zuten, hots, kartoiz egindako oin, kandela-euskarri edo sabai-lanpara bat; eta, Ana Rita Izquierdo Bienzobasen lana, USB bat erabilera anitzeko txarteldegi batekin osatzeagatik.

Sariak joan den azaroaren 18an banatu ziren, eta ekitaldi-burua Andrés Eciolaza izan zen, hau da, Nafarroako Gobernuako Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusia. Sari-banaketarekin batera, Hondakinak Prebenitzeko Europako Astea abiarazi zen.

Ikasleentzako I. Ekodiseinu Lehiaketa Nafarroako Gobernuak sustatua da, CRANaren bidez. Deialdiarekin batera, irailaren 19an mintzaldi bat antolatu zen; "Ekodiseinu grafiko: iraunkortasunarekin bat diseinatzea", Ángel Paynella adituak eman. Berrogeita hamarren bat entzule joan ziren: batzuk, diseinu grafikoa ikasten dihardutenak, eta, besteak, arlo horretako profesionalak.

Irudimena eta iraunkortasuna, janari-hondarrekin egindako sukaldaritzta-tailerrean

Sukaldaritzako hainbat profesionalak emandako tailerrak; horra hor Hondakinak Prebenitzeko Europako Asteak ekarritako gauza berrietako bat



Jendea adi-adi azalpenei begira

Hona hemen hainbat aholku, gure sukaldean hondakin gutxiago sortzeko:

- Elikagai ekologikoak, garaian garaikoak eta tokian tokikoak erabiltzea.

- Behar dugun huraxe erostea; ez besterik.

- Iraungitze-datari erreparatu eta data hori kontrolatzea.

- Janaria ongi gordetzea.

- Janaria bota beste biderik ez badago, dagokion edukiontzian botatzea.



ERREZETA LIBURUA
Zure sukaldea birziklatzeko aukera

Izan ere, janaria botatzea eragozteko eta hondakin gutxiago sortzeko, hainbat tailer egin ziren Hondakinak Prebenitzeko Europako Astearen barruan, janari-hondarrak irudimenez nola aprobetxatu ikaste aldera; emaitza, errezeta goxoak eta berriak.

Hondakinak Prebenitzeko Europako Astearen gauza berrietako bat izan zen, eta sekulako arrakasta izan zuen. Nafarroako Gobernuak CRANaren bidez sustaturik, Bortzirietako, Eskaraizuko eta Mairagako Mankomunitateak lagundu zuten. Iruñeko tailerrean Ecogras aritu zen lankide, hau da, etxeko olio erabiltzaileak berreskuratzen diharduen entitatea.

Alex Múgica (La cocina de Alex Múgica), Mikel Ceberio (Otsagabiko Kixkia jattetxea eta La mesa de Mikel), Iñaki Pikabea (Zalain jattetxea) eta Gloria Mendivil gastronomia-irakaslea aritu ziren, eta guztiek ere argi utzi zuten eskura ditugun baliabideak aprobetxatzea eta janaria ingurumenarekin bat prestatzea jostagarria, irudimentsua eta zaporetsua ere badela.

Errezeta guztiak errezeta-liburu batean bildu dira. Errezeta-liburua CRANaren webgunean dago eskura, bai eta Nafarroako Hondakin Mankomunitateen webguneetan ere.

Janari aunitz botatzen da

Tailerraren helburu nagusia izan da herritarrek zaborretara botatzen dugun janari kopuru handiaz sentsibilizatzea; hortik heldu da janari-hondarrak aprobetxatzen ikastearena. Izan ere, Europar Batasunak egin berri duen azterlan baten arabera, lagun bakoitzak urtero 180 kg janari-hondakin botatzen du. Bada, zaborretara iristen den janariaren % 43 etxean botatzen da, eta denda eta supermerkatuetan, berriz, % 4. Espainiako jattetxeek, bestalde, 63.000 tonatik gora janari botatzen dute urtean, eta janari-hondarrok 255 milioitik gorako galerak sortzen dituzte sektorean, FEHR-Espainiako Ostalaritza eta Sukaldaritzta Federazioaren arabera.

Tristram Stuart jaunak idatzitako "Despilfarro" liburuan esaten denez, munduan botatzen den janari guztia aski litzateke mundu zabaletan goseak dauden gizon-emakume guztiak hainbat aldiz elikatzeko; hau da, mila milioitik gora lagun elikatzeko.

Elikaduran dagoen xahukeria izugarria da; Europan, 89 milioi tona baino gehiago urtean (eta horrek 170 milioi tona karbono dióxido eragiten du). Bada, xahukeria hori izugarritzko diru-gastua da; eta ez legoke tainako gasturik, bestelako ohiturak hartuko bagenu.

Erosketa publiko iraunkorren bidez ere hondakin gutxiago sortzen dira

Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 22/2011 Legeak xedaturik, administrazio publikoak planak landu behar ditu hondakin gutxiago sortzeko. Legeak, zehazki, erosketa eta kontratazio publikoa proposatzen du, legez finkatuak dauden hainbat helburu lortzeko.

Erosketa eta kontratazio publiko iraunkorren bitartez, produktuak eta/edo zerbitzuak erosi eta kontratatzerakoan, ez zaie soilik erreparatzen alde ekonomikoari eta teknikoei, baizik eta baita haien bizitza osoan ingurumenean sortuko duten eraginari ere.

Ingurumenarekin bat datorren erosketa hainbat arauditan ageri da barreiatuta, baina hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 22/2011 Legea nabarmendu behar da. Hainbat neurri arrerikusten dira; besteak beste, produktu berrerabilgarriak eta aise birziklatzen diren gaiak erabiltzea, bai eta hondakinetatik datozen gaiekin fabrikatzen diren produktuak erabiltzea ere. Era berean, bestelako bideak aurreikusita daude, hondakin gutxiago sortzeko: adibidez, sektore publikoak eta enpresek ingurumenarekin bat datozen irizpideak erabiltzea erosketak egiterakoan.

Nafarroako Gobernuak gaia landu du, Nafarroako Ingurumen arloko Baliabide Zentroarekin (CRANA) eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin batera, toki entitateek beren erosketak eta kontratazio publikoak ingurumenarekin bat egin ditzaten; hartara, toki entitateetako eta Foru Administrazioari hainbat Departamentutako ordezkariak prestatzeko ekintzak egin dira.

Era berean, toki entitateei aholkularitza zerbitzua ematen zaie, halaxe eskatzen badute. Horrela, 2011n, hainbat udali eman zaie laguntza kontratazio-pleguak garatzeko. Hona hemen adibide batzuk: "Antsoaingo Gazteriaren Etxearen kudeaketa", "Noaingo Udalaren eraikinen garbiketa" eta "Corellako Kultur Zentroko ikasgelak, eta ikasketa eta

irakurketa eremua altzariz hornitzeko kontratuari buruzko txostena eta balorazioa".

Lan-ildo horren baitan, hainbat plegu-eredu egin dira, toki entitateek erabil ditzaten. Udal eta Kontzejuen Federazioaren webean daude eskura (www.fnmc.es), bai eta CRANAren webgunean ere (www.crana.org). Plegu-ereduek, zehazki, hauxe biltzen dute:

- Ekipamenduak eta altzari-osagarriak
- Paper hornidura
- Udal eraikinen garbiketa
- Lorategiak eta berdeguneak mantentzea
- Obrak (berriz ere lantzen ari dira, erakuntza eta eraispeneko hondakinei buruzko 23/2011 Foru Dekretuak dioena jasotzeko)

Jardunbide ona. Nafarroako Arartekoaren Idazkaritza Nagusia

2007an proiektu bat abiarazi zen, erosketa arduratsurako irizpideak eta mekanismoak ezartzeko, Nafarroako Arartekoaren argitalpenak iraunkorrak izate aldera. Hartara, agiri bat hartu zuten oinarri, hauxe: "Estatuko Administrazio Orokorraren Kontratazio Publiko Berderako Plana" (2008/116/AGINDUA).

Gaur egun, hasierako asmoak gainditu egin dira eta erosten den paper guztia birziklatua izateaz gain, plazaratzen diren argitalpen guztiak ere paper birziklatuan egiten dira. Gainera, erakundearen lanak gora egin badu ere, paper gutxiago erabili da, eta, 2011n, adibidez, kosteak % 22,4 jaitسي dira, 2010aren aldean. 2011n, bestalde, txosten guztiak eta bestelako argitalpenak bitarteko elektronikoz bidali dira, eta ez da papera erabili.



PEFC etiketa (Oihanak Ziurtatzeko Sistemak Aitortzeko Programa), oihan jatorriko produktuak ingurumenarekin bat kudeatzen diren oihanetatik datoz.



Europako etiketa ekologikoa



Iparreko Zisnea (eko-etiketajean ari den taldea, Danimarkaz, Islandiaz, Finlandiaz, Norvegiar eta Suediaz osatutakoa)



Aingeru urdina (Alemania). Ustiapen iraunkorretatik datorren zura.

9.100etik gora bisitari izan ditu “Lotu zaitez birziklapenari” erakusketa ibiltariak

Erakusketa birmoldatu da, iazkoan Nafarroako 55 herritara iritsi ondoren



“Enchúfate al reciclaje-Lotu zaitez birziklapenari” erakusketa ibiltariaren irudia

“Lotu zaitez birziklapenari” kanpaina Tuteran jarri zen abian, 2010eko azaroaren 10ean. Herriz herri ibili den autobusa ikasgela mugikor baten gisa moldatu da, eta jende asko ibiltzen den kaleetan jarri da. Hilabeteotan, beraz, autobusak Nafarroako hamasei mankomunitateetako herri nagusiak bisitatu ditu.

Irakasleek egindako balorazioa

“Lotu zaitez birziklapenari” erakusketa ibiltaria bisitatu duten gehienak ikasleak izan dira. Horrela, autobus barreneko panelen, ikus-entzunezkoen eta arduradunaren azalpenen bidez, aukera izan dute tresna elektrikoak eta elektronikoak zehatz-mehatz zer diren jakiteko, eta tresna horiek behar bezala kudeatzeak duen garrantziaz jabetzeko.

Ikasleen irakasleek ere erakusketa ikusi dute eta, egia esan, ontzat jo dituzte erakusketan erabiltzen diren materialak eta bertan ematen diren azalpenak, argiak oso baitira. Irakasleen esanetan, erakusketa lagungarria izan da ikasleak hondakinak bereizten hasteko.

Erakusketa, birmoldatua

Horrenbestez, Nafarroako 55 herritara iritsi ondoren, erakusketa birmoldatu egin da. Esan dezagun, ibilian, ikasle bisitarien tresna elektriko eta elektronikoak (TEEak) jaso direla. Orain, beste gauza batzuen artean, María José Rekalde eta Juan Sukilbide artistek tresna elektrikoak eta elektronikoak oinarri hartuta egindako gauzakiak gehitu dira. Nafarroako Gobernua, Iruñerriko Mankomunitatearekin elkarlanean, erakusketa birmoldatua jarri zuen ikusgai joan den abenduan eta urtarrian, Mankomunitatearen erabile- ra anitzeko gelan.

9.100etik gora bisitari izan ditu “Lotu zaitez birziklapenari” erakusketa ibiltariak. Haren helburu nagusia herritarak sentsibilizatzea izan da tresna elektrikoak eta elektronikoak birziklatu beharraz; izan ere, tresnok behar bezala tratatu eta birziklatzea onuragarria da ingurumenarentzako eta gizartearentzako.

9.100etik gora lagunek ikusi dute “Lotu zaitez birziklapenari” erakusketa ibiltaria. Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuak (CRANaren bidez) abiarazitako erakusketa izan da, Tresna Elektrikoak eta Elektronikoak Kudeatzeko Sistema Integratueta kudeatzaileekin batera.

Erakusketa ibiltariaren ardatza autobus bat izan da eta, 2011n, 55 herritara iritsi da; bisitari gehienak eskolaumeak izan dira. Etxetresna elektrikoaren BSH enpresak eta Leclerc hipermerkatuak, gainera, era-

kusketaren zati bat jarri dute ikusgai; horrela, gizarte sentsibilizatzen lagundu dute.



Erakusketa birmoldatuaren irudia

Toki entitateak, ostalariak eta herritar elkarteak elkarrekin ari dira, herriko festetan beira-bilketa hobetzeko.

Artaxoa, Altsasu, Azagra eta Martzilla “Mezua botila batean” kanpainari lotu zaizkio



Ostalaritza establezimenduetako, Almus elkarteko, Martzillako Udaleko eta Erriberagoieneko Mankomunitateko ordezkariak.

“Elkarrekin aritzeak emaitza onak dakartza”. Horra hor nola laburbildu genezakeen “Mezua botila batean” izenburuko kanpaina, beira gaika biltzearen alde. Ekimena hainbat herritan abiarazi zen, joan den 2010ean, eta 2011n, beste lau herritan ere egin zen; hots, Artaxoan, Altsasan, Azagran eta Martzillan.

“8 Oeko hamarkadaren bukaeratik hona ari gara ingurumen kontuak lantzen, eta, egia esan, kontu horietan oso sentsibilizatuta gaude. Martzillan, esaterako, beira kopuru izugarriak sortzen ziren, eta ez zen deus ere birziklatzen. Festei buruzko artikulua Hondakinei buruzko Aldizkarian irakurri eta CRANara jo genuen, ekimena Martzillan egin ote zitekeen jakiteko, eta ekin egin genion” azaldu digu Javier Fabok, hau da, herriko Almus elkarte naturazaleko ordezkariak. 100 bazkide baino gehiago ditu, eta Martzillako jaietan bei-

ra gaika biltzearen aldeko kanpainaren bultzatzaileetarikoa bat izan da. Ekimena beira gehien sortzen den lekuetan egiten da; hau da, taberna, elkarte eta koadri- len etxabeetan, eta Nafarroako Gobernuak Ecodirio enpresarekin egina duen hitzarmenaren baitan dago. CRANAK dauka ekimena garatzeko ardura.

Erriberagoieneko Mankomunitatea eta Martzillako Udala gogoz lotu zitzaizkion kanpainari, eta, kanpaina hedatu zenean, Azagrako Udalak ere harekin bat egin zuen, herriko festetan zirt-zart gauzatze- ko.

Ostalarien konpromisoa

Hasteko eta bat, ostalarien artean inkestak egin ziren, taberne- k, elkar- teek eta piper- oek birziklapenari zer- nolako garrantzia ematen zioten jakiteko eta zer arazo ikusten zuten bilketa behar bezala ez egiteko. Inkestek argi utzi zuten ostalari- ek kanpainan parte hartze-

ko gogoa zutela. Inkestei erantzuna emandako- en % 65ek esan zuten edu- kiontzi aho- zabaletan errazagoa izanen zela gaika uztea; orduantxe, eraba- ki zuen Erriberagoieneko Mankomuni- tateak aho zabaleko iglu giltzadunak paratzea. Kanpainan parte hartze- ko eta behar bezala erabiltze- ko konpro- misoa hartu zutenei giltza eman zit- zaien. Martzillan hamabi tabernak par- te hartu zuten, eta, Azagran, berri- z, ha- mabost tabernak, herriko hainbat el- kartek eta bi peñek. Esan behar da Aza- grako Udalak establezimenduetan ont- zia- k banatu zituela.

Emaitzak

Emaitzak oso pozik egoteko modukoak izan ziren, beira gehiago biltzeaz gain (320 kilo Martzillan eta 3.900 Azagran), kalitatea ere handitu zelako eta jende gehiago kontzientziatu zelako. Estable- zimenduek egindako ahalegina eskertze- ko, pegatina bat banatu zitzairen, kan- painan parte hartu izana nabarmentze- ko, eta, horrez gain, batukada batek bazterrak ederki girotu zituen bi he- rrietako jaietan.

Artaxoako festak ere iraunkorrakoak izan ziren, Izarbeibarko Mankomunitatea eta herriko udala kanpainari buru- belarri lotu zitzaizkiolako. Herriko gastronomia- elkar- te, taberna eta pipote aunitzek, izan ere, gogoz parte hartu zuten; 25ek, zehaz- ki.

Kontzientziazioa zabaltzeaz gainera, beira ongi bilduko bada, behar bezala- ko azpiegitura behar da eta bilketa- zer- bitzuetan ahalegina egitea. Horixe ger- tatu zen, hain zuzen ere, Altsasuko jaie- tako beira birziklatze- ko kanpainan, 56 tabernak, 8 elkar- tek eta txosna batek parte hartu baitzuten. Sakanako Man- komunitateak, bere aldetik, gaikako bilketarako azpiegitura hobetu egin zuen; hartara, edukiontzi gehiago pa- ratzeaz gain, bilketa- zerbitzua ere sen- dotu egin zuen.

Beira birziklatzeak ingurumenera, gizartera eta ekonomiara dakartzan onurak

Haren ezaugarriak ez dira aldatzen eta bere osoan aprobetxatzen da



Botila bat birziklatzeak aurrezten duen energiarekin, 100 watteko bonbilla bat lau orduez egon liteke piztuta

Beira birziklatzea onuragarria da ingurumenarentzat, gizartearentzat eta ekonomiarentzat. Behin birziklatutakoa, gainera, beiraren ezaugarri guztiek bere horretan irauten dute, aldaketarik gabe, eta bere osoan aprobetxatzen da berrerabiltzeko.

Beira birziklatzeak energia asko aurrezten du. Esaterako, botila bat birziklatzeak aurrezten duen energiarekin, lau bat orduez egon zitekeen piztuta 100 watteko bonbilla bat. Birziklatzen den beira, izan ere, tenperatura apalago-

an urtzen baita. Horren ondorioz, ur gutxiago erabiltzen da eta airea gutxiago kutsatzen da.

Beira-birziklapenak, gainera, natur baliabideak aurrezten ditu, erauzketak lurretan eragiten duen suntsiketa eragozten baita. Silizezko harea gutxiago erabiltzen da, esaterako; silizezko harea, jakina, metategietatik erauzten da, eta erauzketan, energia asko kontsumitzen da.

Beira birziklatzearen ondorioz, gainera, lurzoruen kutsadura murriztu egiten da. Kalkuluen arabera, iglu-edukiontzian utzitako 3.000 botila bakoitzeko, mila kilo zabor gutxiago dira. Eta, jakina, beirakiak birziklatzen baditugu, legez kanpoko isurte-

DATUA

giak edo zabortegiak gutxiago izanen dira. Nabarmendu behar da Nafarroa dela beira gehien birziklatzen duen erkidegoa, Euskal Autonomia Erkidegoarekin batera. 2010ean, beira gehiago birziklatu zen; % 1,2 gehiago, hain zuzen. Guztira, 16.179 tona, hau da, 2009an baino 184.975 kilo gehiago. Nafarroak du, gainera, beira-edukiontzi gehien biztanle bakoitzeko, Espainiako erkidego guztien artean: iglu bat, 153 herritar bakoitzeko, hain zuzen.

Beira-ontzian



BAI

Soilik beirazko ontziak

- Botilak
- Potoak
- Flaskoak

EZ

- Platerak
- Katiluak
- Zeramika
- Edalontziak
- Kopak
- Kopak
- Kortxoak
- Txapak
- Ispiluak
- Porzelana

Mila esker beira birziklatzen laguntzeagatik

Sustatzaileak:



Garatzailea:



Laguntzaileak:



Laguntzaileak:

HONDAKINEN MANKOMUNITATEAK

Parte-hartze handia, eraikuntza eta eraispenerako hondakinak kudeatzeari buruzko jardunaldietan

Arlo horretako profesionalak eta toki entitateek 23/11 Foru Dekretuaren xehetasunen berri izan dute



Jendea jardunaldian bilduta

Nafarroako Gobernuak antolaturik, hainbat saio egin dira profesionalentzako eta toki entitateentzako, eraikuntza eta eraispenerako hondakinak kudeaketa arautzen duen dekretuaren xehetasun guztiak argitzeko, bai eta arauak dakartzan betebeharrak guztien berri izateko ere.

2 3/2011 Foru Dekretuak eraikuntza eta eraispenerako hondakinak kudeaketa arautzen du eta haren helburu nagusia da hondakin horien birzik-

klapena eta balorazioa sustatzea, eta isurtze-ahalik eta hondakin gutxien ezabatzea. Araudiak eginkizun nabarmena ematen die toki entitateei (eta entitateok fidantza izapidetzen dute, behin hondakinak kudeaketa ongi eginda), bai eta hondakinak kudeatzen dituzten enpresei ere, aipatu kudeaketa ziurtatzen dutelako. Hondakin-kudeatzaileen lanaren garrantzia ikusita, Eraikuntza eta Eraispenerako Hondakin Kudeatzaileen Espainiako Elkarteak sortu da, zeregin horretan diharduten enpresak elkartzeko eta haien ordezkaritza izateko.

Saioak

la 300 lagunek parte hartu dute Nafarroako Gobernuak, beste erakunde batzuekin elkarlanean, antolatutako jardunaldietan, Foru Dekretuaren xehetasunen berri emateko, eta, horrez gain, eraikuntza eta eraispenerako hondakinak kudeatzera bideratutako aukerabide teknikoak jakinarazteko, bai eta arauak ukitutako eragile bakoitzak

zer betebeharrak dituen jakiteko ere. Horrela, Nafarroako Gobernuak Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuak informazio-saio bat antolatu zuen joan den maiatzaren 12an, eta 120tik gora profesionalak parte hartu zuten. Kolaboratzaileak CRANA eta NAMAISA izan ziren.

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak, bere aldetik, hiru saio antolatu zituen toki entitateentzako; Lizarran, Tuteran eta Iruñean, hain zuzen.

Aparejadoreen Elkargoan, halaber, berriratzeko saio bat egin zen, eta, bilera gehiagoko egitea aurreikusita dago, beste arlo batzuetako profesionalak eskatuta.

Gobernua, gaur egun, Foru Agindu bat lantzen ari da 23/2011 Foru Dekretua zabalitzeko eta haren betearazpena errazteko; hori lagungarria izanen baita Nafarroako Hondakinak Kudeatzeko Planak dakarren helburua betetzeko: hots, 2020rako, eraikuntza eta eraispenerako hondakinak % 70 birziklatzea.

Produktu itzulgarriak sustatzea hondakinak murrizteko bitarteko ona da

Nafarroako Gobernuak jardunaldi bat antolatu zuen, ontziak gorde eta itzultzeko sistema azaltzeko

Hainbat enpresa eta Toki Entitateetako berrogei bat teknikari eta adituk parte hartu zuten Nafarroako Gobernuak antolatutako jardunaldian, ontziak gorde, itzuli eta berreskuratzeko sistemari buruz.

Produktu itzulgarriak sustatzeko neurriak funtsezkoak dira, hiri hondakinak 2020rako % 10 murriztea lortzeko, Nafarroako Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralak ezarritakoarekin bat. Neurrien artean, erabateko lehentasuna du berazko ontziak berrerabiltzek.

Nafarroako Gobernuak, izan ere, ontziak gorde eta itzultzeko sistemari buruzko jardunaldi bat antolatu zuen joan den azaroa-

ren 25ean, Hondakinak Prebenitzeko Europako Astearen ekitaldiei amaiera emateko.

Gai interesgarri asko jarri ziren mahaia gainean; besteak beste, zertan den gaur egun Nafarroan ontzi-hondakinak kudeaketa; kudeaketa hori hobetzeko funtsezkoak diren alderdiak, eta ontzien berrerabilpenak Nafarroan izan dezakeen potentziala.

Jardunaldian, parte-hartzaile hauek aritu ziren: Andrés Eciolaza, Nafarroako Gobernu Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusia; Raúl Salanueva, Nafarroako Gobernu Hondakinatarako Atalburua; Rosa García, Hondakinak Prebenitzeko eta Kontsumo Fundazio zuzendaria eta Retorna Elkarteko kidea; Juan Ramón Meléndez, Sismegako zuzendari nagusia; Iñaki Murillo, Murillo



Viteri upeltegietakoa; Pedro García, García upeltegietakoa, eta Marisol Casado, Nafarroako Ostalaritza Enpresa Txikien Elkarteko ordezkaria.

Ikastetxeak, hondakinak murrizteko prest



Nafarroa osoko ikastetxe frankok beren hondakinak murrizteko konpromisoa hartu dute, hondakinei buruzko eskola-planen bitartez. Plan horien asmoa da ikastetxe bakoitzean hondakinak prebenitzeko eta gaika biltzeko esperimentziak garatzea. Planek, gainera, nork bere ebaluazioa egiteko proposamena dakarte, ikastetxe bakoitzak ingurumenari begira zer-nolako egoera duen aztertze eta hobekuntzak proposatu eta egiteko, betiere hiri hondakin gutxiago sortze aldera eta sortzen direnak biltze eta birziklatze aldera.

Hona hemen zer ikastetxe diren: La Paz BHI (Cintruénigo), Garces Los Fayos Ikastola (Tafalla), Virgen del So- to I.P. (Caparrosa), José Luis Arrese HLHIP (Corella), Otsagabia DBHI (Otsagabia), Aralar Mikel Donea BHI (Altsasu), Paz de Ziganda Ikastola (Atarrabia), Orreagako Ama (Garralda), San Migel HLHIP (Orkoien), Pablo Sarasate BHI (Lodosa), Corellako Arte Eskola (Corella), Askatasuna BHI (Burlata), Obanos HLHIP (Obanos) eta Labiaga Ikastola (Bera).

Hondakinei buruzko sentsibilizazio tailerra

Nafarroako hondakin mankomunitate ia guztiek ikasleak hondakinen inguruan sentsibilizatzeko tailerretan parte hartu zuten, iaz; guztiek, Iruñerrikoak izan ezik, bere heziketa-programa baitute. Ikasleak, guztira, 4.983 izan ziren, eta, tailerrak, berriz, 244. Tailerren helburu nagusia izan da hondakin gutxiago sortzea eta hiri hondakinak gaika biltzea.

Langile adituak aritu dira tailerrak koordinatzen, eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleek parte hartu dute. Tailerrak doakoak izan dira.

Ekimen hori Nafarroako Gobernuak hainbat erakunderekin sinatu dituen hitzarmenen baitan dago. Horrela, hitzarmen bat sinatua du beira-hondakinak (Ecovidrio) eta Hondakin Elektriko eta Elektronikoak Kudeatzeko Sistema Integratuz (KSI) arduratzen diren erakundeekin. Gobernuak, halaber, hondakinak prebenitzeari eman dio bultzada, Nafarroako Ingurumen arloko Baliabide Zentroaren bidez (CRANA). Ekimena bat dator Nafarroako Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralarekin, hainbat neurri aurreikusi baititu (prestakuntza, informazioa eta ingurumen-heziketa) herritarrek, oro har, eta ikasleak, bereziki, hondakinen inguruan sentsibilizatzeko.

ETER proiektuak 300 kilo paper aurreztean lortu du

Hizkuntza elektronikoaren bidez, hondakinen informazio eta kudeaketa dokumentala hobetu da

Hondakin arriskutsuak kontrolatzeko eta haien jarraipena egiteko izapidetze telematikoa hasi eta bi urtera, esan daiteke ingurumen arloko datuen trukaketa elektronikorako hizkuntza (E3L esaten zaiona) autonomia erkidego guztietara zabaltzeko dela, bai eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministeriora ere. Iazkoan, bide hori erabili zen, hondakin arriskutsuak kontrolatzeari eta haien jarraipena egiteari buruzko dokumentu guztiak egiteko. Guztira, 15.000 dokumentu inguru izan ziren; beraz, 300 bat kilo paper aurreztu egin da.

Ekimen hori ETER proiektuaren baitan

dago (Ingurumen arloko Datuen Estandarizatze Elektronikoa), eta helburu du hizkuntza elektroniko bat estandarizatzea hondakinen operazioei buruzko informazio eta kudeaketa dokumentala sustatu eta hobetzeko, betiere herritarrek zerbitzu publikoetara bide elektronikoz sartzeari buruzko uztailaren 22ko 11/2007 Legearekin bat. Legearen xedea da paperik batere ez erabiltzea eta izapidetze telematikoa bultzatzea hondakin arriskutsuei buruzko lekualdaketa-jakinarazpenetan, bai eta hondakin arriskutsuak kontrolatu eta haien jarraipena egiteko agirietan ere. Holako agiriak, hain zuzen, ministerioak eta autonomia erkidegoek egiten dituzte.



Gaur egun, behar diren web zerbitzuak lantzen ari dira, beste autonomia erkidego batzuekin eta ministerioarekin egiten diren komunikazioetarako; hartara, kontrol eta jarraimenduko agiriak, eta datu maisuak, trukatzeko plataforma bat garatzen ari da (E3P).

Nafarroak Birziklapenaren Mundu Eguna ospatu zuen

Joan den maiatzaren 17an, Birziklapenaren Mundu Eguna ospatu zen. Hori dela eta, Lan Garapen eta Ingurumen Departamentuak, beira-hondakinak eta tresna elektrikoaren hondakinak kudeatzeko entitateekin batera, hainbat bisita antolatu zituen Agoizko Ecointegra enpresaren planta ikustera joateko, tresna elektrikoak eta elektronikoak nola tratatzen dituzten ikuste aldera. Bestelako bisitak ere izan ziren; hots, Iruñeko Trinitariosko bilketa pneumatikorako zentralera eta hondakinak tratatzeko Gongorako zentroa, Iruñerriko Mankomunitateak kudeatzen duen hartara. Egun horren kariara, Izarbeibarko Mankomunitateak, bere aldetik, edukiontziak ikastetxeetan banatu zituen, ikasleen artean kontzientziaztea sustatzeko.



Mairagako eta Araxes Garaiko Mankomunitateetako garbigune mugikor berriak



Mairagako eta Araxes Garaiko Mankomunitateek bi garbigune mugikor berri abiarazi dituzte etxeko hondakin berezi eta arriskutsuen bilketa sustatzeko. Mairagako Mankomunitateak abiarazi duen garbigunea, zehazki, joan den maiatzean hasi zen lanean, eta, egun jakin batzuetan, Tafallan, Erriberrin,

Caparroson eta Zarrakaztelun ibiltzen da. Mankomunitate horrek kamioi bat egokitu du hondakinak bere kasa biltzeko. Araxes Garaiko Mankomunitatearen garbigune mugikorra, berriz, 2010eko abenduan jarri zen martxan, eta, abenduan eta ekainean ibiltzen da herriz herri.

Bortzirietako Mankomunitateak Ibardingo isurtegia itxi du

Bortzirietako Mankomunitateak Ibardingo isurtegia zigilatu eta behin betiko itxi egin du. Berako isurtegia 2008az geroztik egon da jarduerarik gabe. Lanen helburua izan da inguru hori ingurumenaren aldetik bere onera ekartzea. Isurtegia 1990ean hasi zen erabiltzen, eta, itxi den arte, urtero, 5.000 tona hondakin jaso zituen. Bortzirietako honda-

kin organikoak eta gainerakoa, gaur egun, Gongorako isurtegiara bideratzen dira; edukiontzi horira doazen ontziak, berriz, sailkatu eta Iruñerriko Mankomunitatearen Plantara garraiatzen dira; beirakiak Ecovidrio enpresaren birziklapenera, eta, tamaina handiko hondakinak, azkenik, Emausko Trape-roetara.

Europako Legebiltzarrak hondakin elektrikoak biltzeko eta birziklatzeko helburu berriak onetsi ditu

Europako Legebiltzarrak onetsitako zuzentarauak helburu zorrotzagoak ezarri ditu hondakin elektriko eta elektronikoak biltzeko eta birziklatzeko. Batasuneko estatuek era horretako hondakin gehiago bildu behar dituzte, urteko eta lagun bakoitzeko 4 kiloko helmugara iritsi badira ere; horrela, 2016rako, herrialde gehienek 45 tona hondakin elektriko eta elektroniko bildu beharko dituzte, merkaturatzen diren 100 tona tresna bakoitzeko.

Era berean, kontsumitzaileek zilegi izanen dute tresna txikiak merkataritza-azalera handietara itzultzea (sakelako telefonoak, etab.), produktu berririk erosi behar izan gabe.

Horrez gain, kontrolak ere zorrotzu dira, eta orain legez kontrako kargamenturik ez da bidaliko hondakin elektriko eta elektronikoaren tratamenduak langileen osasuna eta ingurumena arriskuan jartzen dituen herrialdeetara.

Kontseiluak arauari onespren formala eman beharko dio, eta Estatu kideek urte eta erdiko epea izanen dute arau hori herrialde bakoitzean indarrean jartzeko.

Zangozako transferentzia planta

Hondakinen transferentzia planta berria inauguratu da Zangozan. Orain, Tafallako planta berriarekin batera, bi-biek 23.000 tona hondakin kudeatzeko dituzte urtero. Zangozako transferentzia planta berriari Pirinio aldeko estazioa deritzo eta hainbat mankomunitateetako edukiontzi berdeetako hondakinak iristen dira (hau da, gai organikoa eta gainerakoa); zehazki, Zangoza Eskualdeko, 10. Eremuko (Agoitz), Bidausi eta Eska-Zaraitzuko Mankomunitateetakoak. Zangozatik Tuterako El Culebrete zentrorra garraiatzen dira. Hondakinen Partzuergoak sustatutako proiektua izan da, Nilsa sozietate publikoaren bidez. Mankomunitateetan sortzen diren hondakinak transferentzia plantetara garraiatzen dira, eta, planta haietatik errazagoa da hondakinak tratamendu zentroetaraino eramatea, hau da, Carcarrera (Jurramendiko Mankomunitatea), El Culebretera, (Erriberako Mankomunitatea) eta Gongorara (Iruñerriko Mankomunitatea).

Mankomunitateak, informazioa

* Zenbat biztanle eta zenbat herri. 2010eko datuak.



Iruñerriko Mankomunitatea

Mankomunitateburua 2011-2015

Jose Muñoz

Zenbat biztanle 349.149

Zenbat herri 248

Herriak

Adios, Antsoain, Anue, Añorbe, Aranguren, Atarrabia, Atetz, Barañain, Basaburua, Belaskoain, Beriain, Berriobeiti, Berriozar, Bidaurreta, Biurrun-Olkotz, Burlata, Etxarri, Eguesibar, Eneritz, Esteribar, Etxauri, Ezkabarte, Galar, Goñi, Girgillao, Imotz, Itza, Iruñea, Lantz, Legarda, Muruzabal, Noain-Elortzibar, Odieta, Olaibar, Oltza, Ollaran, Orkoien, Tebas-Muru, Arterderreta, Tirapu, Txulapain, Uharte, Ukar, Ultzama, Uterga, Zabaltza, Ziritza, Zizur Nagusia eta Zizur Txikia.



Eska-Zaraitzu Hiriko Hondakin Solidoen Mankomunitatea

Mankomunitateburua 2011-2015

Cruz Moriones

Zenbat biztanle 3.325

Zenbat herri 18

Herriak

Bidankoze, Burgi, Espartza Zaraitzu, Erronkari, Ezkaroze, Galoze, Garde, Gazteluberri, Gorza, Izaba, Itzaltzu, Jaurrieta, Nabaskoze, Otsagabia, Orontze, Sartze, Urzainki, Uztarroze,



Jurramendiko Mankomunitatea

Mankomunitateburua 2011-2015


Pedro Mangado

Zenbat biztanle 54.228

Zenbat herri 126

Herriak

Abaigar, Abartzuza, Aberin, Aguilar, Kodeskoa, Allinibar, Allo, Ameskoabarrena, Antzin, Andosilla, Aranaratxe, Aras, Los Arcos, Arellano, Armañanzas, Arroitz, Aiegi, Azuelo, Barbarin, Bargota, El Busto, Carcar, Desoio, Deikaztelu, Deierrri, Elizagorria, Esprontzedea, Etaiu, Eulate, Gesalatz, Jaitz, Iguzkitza, Lanaibar, Larraona, Legaria, Lerin, Lezaun, Lizarra, Lodosa, Lukin, Mendaza, Mendabia, Metauten, Mirafuentes, Morentin, Mues, Murieta, Nazar, Oko, Olexoa, Oteiza, Piedramillera, Sansol, Sartaguda, Sesma, Sorlada, Torralba del Rio, Torres del Rio, Viana, Villamayor de Monjardin, Villatuerta.



MALERREKAKO MANKOMUNITATEA

Malerrekako Zerbitzu Orokorraren Mankomunitatea

Mankomunitateburua 2011-2015

Alberto San Miguel

Zenbat biztanle 5.509

Zenbat herri 15

Herriak

Beintza-Labaien, Bertizarana, Donamaria, Doneztebe, Elgorriaga, Eratsun, Ezkurra, Ituren, Oitz, Saldias, Sunbilla, Urrotz, Zubieta.



Mairagako Mankomunitatea - Erdialdea

Mankomunitateburua 2011-2015

Patxi Irizar Jáuregui

Zenbat biztanle 27.315

Zenbat herri 33

Herriak

Barasoain, Beire, Caparrosa, Erriberri, Garinoain, Leotz, Melida, Murillo el Cuende, Murillo el Fruto, Oloritz, Orisoain, Pitillas, Puiu, San Martin Unx, Santakara, Tafalla, Uxue, Untzue, Zarrakaztelu.



Mendialdeko Mankomunitatea

Mankomunitateburua 2011-2015

Oier Eizmendi Astibia

Zenbat biztanle 6.542

Zenbat herri 6

Herriak

Arano, Areso, Goizueta, Larraun, Lekunberri, Leitza.



Mancomunidad de La Ribera

Erriberako hiri hondakin solidoak kudeatzeko Mankomunitatea

Mankomunitateburua 2011-2015

Maribel Echave Blanco

Zenbat biztanle 88.921

Zenbat herri 19

Herriak

Ablitas, Arguedas, Barillas, Buñuel, Cabanillas, Cascante, Castejon, Cintruenigo, Corella, Cortes, Fitero, Fontellas, Fustiñana, Monteagudo, Murchante, Ribaforada, Tuteria, Tulebras, Valtierra



Izarbeibarko Mankomunitatea

Mankomunitateburua 2011-2015

M^a Teresa Iradiel

Zenbat biztanle 11.567

Zenbat herri 12

Herriak

Artaxoa, Artazu, Berbintzana, Gares, Girgillao (Etxarren Girgillao), Larraga, Mañeru, Mendigorria, Miranda Arga, Obanos, Zirauki.



Baztango Udala

Mankomunitateburua 2011-2015

Garbiñe Elizegi

Zenbat biztanle 7.982

Zenbat herri 15

Herriak

Almandoz, Arizkun, Azpilkueta, Amaier Berroeta, Aniz, Ziga, Oronoz, Arraioz, Irurita, Gartzain, Lekaroz, Elizondo, Elbete, Erratzu.



MANCOMUNIDAD RSU ZONA 10
ZONA 10 RSU MANKOMUNITATEA

10. Eremuko Hiri Hondakin Solidoak Kudeatzeko Mankomunitatea

Mankomunitateburua 2011-2015

Mabel Cañada

Zenbat biztanle 5.401

Zenbat herri 11

Herriak

Agoitz, Artzibar, Elo, Ibargoiti, Itzagaondoa, Lizoain, Longida, Untzitibar, Urraulgoiti, Urraulbeiti, Urrotz Hiria



Sakanako Mankomunitatea

Mankomunitateburua 2011-2015

Aitor Karasatorre

Zenbat biztanle 20.805

Zenbat herri 28

Herriak

Altsasu, Arakil, Arbizu, Arruazu, Bakaiku, Ergoiena, Etxarri Aranz, Irañeta, Iruztzun, Iturmendi, Lakuntza, Olazti, Uharte Arakil, Urdiain, Ziordia



Nafarroako Erriberagoieneko Hiri Hondakin Solidoak Kudeatzeko Mankomunitatea

Mankomunitateburua 2011-2015

Carlos de Miguel Altimasveres

Zenbat biztanle 34.296

Zenbat herri 9

Herriak

Alesbes, Azagra, Azkoien, Cadreira, Falces, Funes, Martzilla, Milagro, San Adrian.



Bidausi Mankomunitatea

Mankomunitateburua 2011-2015

Esteban Juanarena Apestegui

Zenbat biztanle 2.658

Zenbat herri 14

Herriak

Abaurregaina, Abaurrepea, Aria, Arike, Auritz, Erroibar, Garaioa, Garalda, Hiriberri, Aezkoa, Luzaide, Orbaizeta, Orbara, Orotz-Betelu, Orreaga



Bortzirietako Hiri-Hondakinen Mankomunitatea

Mankomunitateburua 2011-2015

Miguel Mari Irigoyen Sanzberro

Zenbat biztanle 8.658

Zenbat herri 5

Herriak

Arantz, Bera, Etxalar, Igantzi, Lesaka



Zangoza Eskualdeko Zerbitzuen Mankomunitatea

Mankomunitateburua 2011-2015

Jesús Esparza

Zenbat biztanle 10.085

Zenbat herri 16

Herriak

Erromantzatu, Esa, Eslaba, Ezporogi, Galipentzu, Irunberri, Kaseda, Leatxe, Lerga, Ledea, Oibar, Petilla Aragoi, Zangoza, Zare, Xabier,



MANCOMUNIDAD DEL ALTO ARAXES
ARAXES GARAIKO MANKOMUNITATEA

Araxes Garaiko Mankomunitatea

Mankomunitateburua 2011-2015

Mikel Javier Rekalde Goldaraz

Zenbat biztanle 915

Zenbat herri 2


Herriak

Betelu eta Arantz (Azkarate, Betelu, Gaintza, Intza eta Uztegi eta Arribe-Atallu)

Hondakinak zenbakitan

Hiri hondakinaren sorrera; bilakaera


HIRI HONDAKINAK SORTZEA



2008aren aldean, biztanleko eta eguneko sortu den kopurua % 7 murriztu da. Elikagai-kontsumoa % 7 ere murriztu denez, badirudi Hiri Hondakinaren sorrera egonkortu egin dela. Elikagai-kontsumoaren datuak: iturria: MARM.

NHKPI helburuak betetzeko aurreikuspenak: % 10 (2020): % 5,6 falta da helburua betetzeko.

BIO-HONDAKINEN BILKETA




Etxeko hondakin berdeak bio-hondakin gaikako bilketa dira. Hiri Hondakinetak bio-hondakin guztien artean % 4 dira. Ez dira kontuan hartzen Jurramendiko hondakin solidoen gai organikoak, % 10etik gora desegokiak direlako.

Udalek egiten dituzten inausketak ez lirateke kontuan hartu beharko. Helburua bete beharko da mankomunitateen gaikako bilketa proposamenen bidez.

NHKPI helburuak betetzeko aurreikuspenak: % 50 (2020): % 45 falta da


GAIZ GAI BIRZIKLATUTAKO/BALORIZATUTAKO ONTZI ARINEN KOPURUA (t)



Badirudi kontsumoa gehiago jaitsi dela paper/kartoizko ontzietan eta metalezkoetan, murrizketa proportzionala izan baita merkaturatutako ontzien murrizketarekiko (% 7). Beirakiei eta plastikozko ontziei dagokienez, gehiago birziklatzen dira; beraz, horrek esan nahi du ontzi horien gaikako bilketa hobetu dela.

NHKPI helburuak betetzeko aurreikuspenak: ez dago helburu kuantitatiborik kopuru gordiner dagokienez.

HIRI HONDAKINEN BALANTZE GLOBALA



Europar Batasunetik arau bidez datozen jarraibideak ikusita, 2008tik aurrera ez da birziklapentzat joko bio-hondakin bilketa batetik heldu den birziklapena, bilketa hori gaika egin ez bada; horregatik grafikoa jaitziera bat ageri da.

NHKPI helburuak betetzeko aurreikuspenak: % 52 (2020rako, 2008ko erref.). % 23 falta da.

Nafarroako hondakinak kudeatzeko erakundeak eta azpiegiturak



Hondakinak kudeatzeko Mankomunitateak eta Udalak

Baztango Udala

Foruen plaza z/g 31700 Elizondo
948 580 006

Araxes Garaiko Mankomunitatea

Kale Nagusia, 4 31891 Arribe - Araitx
948 513 087

Bortzirietako Hiri hondakin Mankomunitatea

Andutzeta karrika, 15 31760 Etxalar
948 635 254
www.bortziriazabor.com

Iruñerriko Mankomunitatea

Chinchilla jeneralaren k, 7 31002 Iruña
901 502 503
www.mcp.es

Mairagako Mankomunitatea

San Salvador, 11 - behe 31300 Tafalla
948 703 305
www.mairaga.es

Malerrekako Mankomunitatea

Merkatarien karrika, 17 behe 31740 Doneztebe
948 451 746

Mendialdeko Mankomunitatea

Elbarren kalea, 1 31880 Leitza

948 510 444

Jurramendiko Mankomunitatea

Bellviste, 2 - 31200 Lizarra
948 552 711
www.montejurra.com

Bidausiko Hondakin solidoen Mankomunitatea

Petra Matxin, 1 - 31693 Garalda
948 764 008

Eska-Zaraitzu Hiriko Hondakin Solidoen Mankomunitatea

Antonio Aróstegui, 5 - 31450 Nabaskoze
948 470 008

Sakanako Mankomunitatea

Uriz kalea, 38 - 31830 Lakuntza
948 464 867
www.sakana-mank.com

Zangoza Eskualdeko Zerbitzu Mankomunitatea

Kale Nagusia 9 - 11. Posta kodea: 31400 Zangoza
948 871 247

Izarbeibarko Mankomunitatea

Mendigorría errep., 1 behe - 31100 Gares
948 341 076

Erriberako Hiri Hondakin solidoak kudeatzeko Mankomunitatea

Paseo de Los Grillos, 17 - 31500 Tuteria
948 411 894
www.mancoribera.com

Erriberagoieneko Hiri Hondakin solidoak kudeatzeko Mankomunitatea

Avda. de la Paz, 21 - 1. sol. B - 31350 Azkoien
948 713 179

10. Eremuko Hiri Hondakin solidoak kudeatzeko Mankomunitatea

Kale Berria, 22 - 31430 Agoitz
948 336 217

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentua

<http://www.navarra.es> 848 42 66 98

Nafarroako Hiri Hondakin Partzuergoa (NILSAk kudeatua)

<http://www.nilsa.com> 948 176 928

Birziklapena Sustatzeko Bulegoa (Gestión Ambiental-ek kudeatua)

<http://www.namainsa.es> 948 198 636

Nafarroako Ingurumen arloko Baliabide Zentroa (CRANA)

<http://www.crana.org> 948 140 018

Izena eman hemen: residuos@crana.org

